

# euskal balea



barrenet 5. ikastunitatea  
2. maila  
irakaslearena

400 pta.

## EGILEAK

Proiektuaren arduraduna:	<b>Juxto Egaña</b> (HABEko Hizkuntzaren Didaktika arduraduna)
Kudeaketa:	<b>Joanba Bergara</b> (HABEko Prestakuntza arduraduna)
Koordinatzaile didaktikoak:	<b>Begoña Martinez</b> (HABEko teknikaria) <b>Sabin Zabala</b> (HABEko teknikaria)
Partehartzaileak:	<b>Anabel Alegria</b> (Leioako Udal Euskaltegia) <b>Joxe Manuel Goenaga</b> (Santurtziko Udal Euskaltegia)
Errealizazio didaktikoa:	<b>Esther Isasa</b> (HABEko teknikaria)

© HABE 1999. ISBN 84-86968-73-9

HABE Erakundeak eskerrak ematen dizkie Enkarterrietako, Leioa, Muskiz eta Santurtziko Udal Euskaltegi eta Udalei materialgintza proiektu honetan parte hartzerakoan agertu duten borondateagatik.

Halaber esker ona luzatu nahi die euskalduntze-alfabetatzegintzan diharduten euskaltegi guztiei, beren esperientzia eta ekarpena baliagarri izan direlako.

Diseinua eta maketazioa: **Tita Lorenz** eta **Marisa Mantxola** • Marrazkiak: **Marisa Mantxola**

Gure esker ona ondoren aipatzen direnei hainbat material eta ideia hartzeko baimena eman digutelako:

Euskadi Irratia:

Norteko ferrokarrila saioa. Gaia: Balea. Euskadi Irratia 19971106. Pili Kaltzada eta Joxerra Aihartza.

Euskal Telebista:

Bertatik Bertara saioa. Gaia: Talaiak 971119. Andoni Aizpuru eta Joxe Antonio Azpiazu Mendizabal Idiazabal, Mikel. Euskal balea, mitoa baino gehiago In: Elhuyar 96: 10-13. orr.

Murgil eta Sarda Taldeak 1989 Balea eta euskaldunak. Gaiak, 5.

Melville, H. 1979 Moby Dick. KIMU saila. GERO.

Fructuoso, Harriet 1989 Justin Hiriart: Izotzetako tranpa. Erein.

Murgil Taldea 1985 Euskal balenzaleak. Arrantzaleak ala kortsarioak? Gordailu: Historia saila, 3.

Erakunde honek aitortzen du ikas-material hau egiteko bestek sortutako ikus-entzunezko irudiak eta argazkiak erabili direla, eta eskerrak ematen dizkiete egileei:

Itsasoa 4. aletik 60, 251, 254 eta 255. Orrialdeetako argazkiak. ETOR-HOSTOA; S:A:

National Geographic 1992 Bale handiak. Eusko Jaurlaritza eta Tripp Pictures.

# euskal balea

barrenet 5. ikastunitatea

Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikulua

2. maila

irakaslearena

## Hitzaurrea

Mende berriaren atarian, helduen euskalduntzearen berrikuntzaren aldeko erronkaren aurrean, HABEk kurrikulu-proiektua jarri du abian eta bere garapenerako hainbat pausu ematen saiatu da euskaltegiekin lankidetzan.

Berrikuntza kurrikularrak aldaketa sakona eskatzen du, hizkuntzaren ikas/irakas prozesuen bai helburu, eduki eta metodologiaren oinarritzko balore eta printzipioetan, bai ebaluazio sisteman.

Badakigu eguneroko jardunari eragiten dioten aldaketek, egonezinak, zalantzak sortzen dituela. Urte askotako jardunak –eta ez jardun okerrak, bai baitakigu urte hauetan egindako ibilbidea eta esfortzua euskalduntze-alfabetatze arloan ez dela makala izan– errotu dituzte irakasleengan uste eta jardun didaktiko jakin batzuk.

Kurrikulu berrikuntzak dakarren aldaketa sustatzeko ez da, beraz, aski teoria berriak hotz-hotzean zabaltzea. Beharrezkoa izango da irakasleei, ahalik eta era zabalenean, jardura didaktiko berriak azaltzea, eta gelako benetako praktikara hurbiltzea. Beharrezkoa baita ere, hizkuntza ikas/irakaskuntzaren oinarri eta printzipioetatik eguneroko jardunerako jauzia errazteko zubia eskaintzea.

Eta horixe izan nahi dute HABEk aurkezten dituen ikasmaterial hauek; teoria eta praktikaren arteko zubia, kurrikuluaren mezua gauzatzeko aukera zehatza eta mezu horretara iristeko bitartekoa.

Material hauek diseinatzerakoan kurrikuluak bideratzen dituen eredu metodologikoen artean aukera bat egin da. Ez da, noski, aukera posible bakarra, baina bai, asmoz behintzat, eredu edo bidelagun, irakasleek beraiek euren materiala antolatu ahal izateko bidea erakutsi nahi dutenak.

HABEk Helduen Euskalduntzearen Oinarritzko Kurrikuluari (HEOK) dagozkion hiru mailatarako ikastunitateak burutu ditu.

Eskura duzun unitatea Barrenet sailekoa duzu. Barrenet 2. mailarako ikastunitateak osatzen dute; beren helburua, berriz, hirugarren mailarako hazia ereitea izango da, oinarriak ezartzea. Lau trebetasunen garapen integratua lantzerako datoz, diskurtsoaren plangintza-estrategiak jorratuz.

Ikastunitate hauek ez dute ikasprozesu osoari dagokion ibilbidea betetzen, uste baitugu irakasleak aplikatzaile huts eta zurrun ez, baina erabiltzaile zuhur, zentzudun eta printzipiodun izanik, zentzu kritikoz, jakingo dutela beren materialak antolatzen, eguneroko errealitateari eta beharrei erantzunez.

Jokin Azkue Arrastoa  
HABEko Zuzendari Nagusia



# AURKIBIDEA

## 1. Sarrera

- |   |   |
|---|---|
| 1. Irakaslearentzako oharrak              | 6 |
| 2. Ikastunitatearen ibilbidea             | 7 |
| 3. Ikastunitatearen edukiak eta helburuak | 9 |

## 2. Atazak

- |  |    |
|--|----|
| <b>A Ataza:</b> Orioko balearen bertsoak   | 10 |
| <b>B Ataza:</b> Informazioa biltzen        |    |
| <b>B.1.</b> Euskal balea ezagutzen         | 12 |
| <b>B.2.</b> Euskaldunak balearen arrantzan | 14 |
| <b>B.3.</b> Arrantzako teknika             | 15 |
| <b>C Ataza:</b> Moby Dick                  | 17 |
| <b>D Ataza:</b> Narrazio-testuak sortzen   | 22 |

## 3. Eranskinak

- |                                |    |
|--------------------------------|----|
| 1. Euskal balea ezagutzen      | 25 |
| 2. Arrantzako teknika          | 30 |
| 3. Bideo-pasarteak             | 33 |
| 4. Norteko ferrokarrila: Balea | 36 |
| 5. Balea! Balea!               | 40 |

## 4. Material osagarriak

- |   |    |
|---|----|
| <b>B.1. Ataza:</b> Euskal Balea ezagutzen |    |
| 1. Diktoglosia                            | 42 |
| <b>B.3. Ataza:</b> Arrantzako teknika     |    |
| 2. Talaiak                                | 44 |

Ikastunitate  
honetako gaia euskal balea  
eta beronen arrantza izango dira.

Horrela, ikastunitatearen amaieran Benito Lertxundiren kanta ezagun bat dela medio, zera eskatuko diegu ikasleei: balearen arrantzaren gaineko bertso batzuetatik abiatuta, narrazio-testu bat sor dezatela.

Horretarako, ikasleek, arrantza horri buruzko zehaztasunez gain, narrazio-testuen zenbait ezaugarri bereganatu beharko dituzte.



## 1. IRAKASLEARENTZAKO OHARRAK

### Eginkizun nagusia

Ikasleek ikastunitate honetan burutu beharko duten eginkizun nagusia hau da: Benito Lertxundiren Orioko baliaren bertsoak prosa narratiboaren moldean berridaztea. Lehenengo ataza, eginkizun horren aurkezpena egiteko erabiliko dugu, eta, bidenabar, ikasleen aurrezagutzatik abiatuta, girotzeko. D atazan, berriz, testua idatziko dute, aurreko atazetan landu eta ikasitakoaren arabera idatzi ere.

### Balearen arrantza

Horrela, B saileko hiru atazek euskal baleari eta antzinako balea-arrantzari buruzko gutxieneko informazioa ematea dute helburu. Izan ere, baleei buruz idaztera behartua dagoen ikasleak gaiaren ezagutza ezinbesteko du.

### Narrazioa

C atazan, berriz, narrazio-testuen ezaugarri formalak aztertuko dira, azken eginkizuna egiterakoan ikasleek argi eta garbi jakin dezaten nolako testua eskatzen ari gaitzaizkien.

### Arretaguneak eta feedbacka

Ikastunitatearen oinarrizko hezurdurari dagozkionak alde batera utzita, esan behar da proposatutako jardueretan era askotako arretaguneak tartekatu ditugula, dela hiztegiaren lanketa, dela ulermen nahiz komunikazio-estrategietan trebatzea, dela testuen analisia, etab. Horrekin batera, jarduera bakoitzaren feedbackean ikusiko den bezala, ariketa guztietan kontrol edo eskakizun-maila bat ezarri dugu, batzuetan malguagoa, beste batzuetan zorrotzagoa.

**! Oharra:** Ikastunitate hau luze samarra denez, atazak ez luzatzen saiatu beharko zenuke. Kontuan izan, nahiz eta azken ataza oso interesgarria izan, ahalegin handia eskatzen diela ikasleei eta komeni dela hauek oso nekatuak ez iristea azken ataza honetara, probetxua aterako badiote.

# 1. IKASTUNITATEAREN IBILBIDEA

## 1. SARRERA

- Ikastunitatearen, helburuen eta lan-egitasmoaren aurkezpena

(9. or.)

## A. ORIKO BALEAREN BERTSOAK

- Marrazkiak ordenatuz, hari narratiboa bilatu
- Azken atazaren aurkezpena
  - Balea: zer dakigu?

(10. or. irak. lib.) (8. or. ik. lib.)

ENTZ/MINTZ

## B. INFORMAZIOA BILTZEN

### B.1. EUSKAL BALEA EZAGUTZEN

- Euskal Balea: ezaugarriak
- Komunikazioari eusteko estrategiak

(12. or. irak. lib.) (11. or. ik. lib.)

MINTZ/IRAK

## O S A G A R R I A K

### DIKTOGLOSIA

- Berreraikitze jardueraren erabilera

(42. or.)

ENTZ/IDAZ

### B.2. EUSKALDUNAK BALEAREN ARRANTZAN

- Balearen arrantza Euskal Herrian
- Bi ulermen-estrategia: informazioaren egituraketa eta elkarlana

(14. or. irak. lib.) (14. or. ik. lib.)

ENTZ

## O S A G A R R I A K

### TALAIAK

- Erreportajearen edukia aurreikusten

(44. or.)

ENTZ/IDAZ

### NORTEKO FERROKARRILA: BALEA

- Irratsaioei nork bere kabuz etekina ateratzeko
- Entzuketara estentsiboa
- Gaiaren inguruko hiztegia

(36. or. ik. lib.)

ENTZ

### B.3. ARRANTZAKO TEKNIKA

- Hiztegia: balea-arrantzako teknika
- Informazioaren erkaketa eta sintesia

(15. or. irak. lib.) (15. or. ik. lib.)

IRAK/HITZ

**! OHARRA** Bi motatako material osagarriak daude. Hauek erabiltzeko erabakia ikaslearen esku dagoenean ikaslearen liburuan bakarrik azalduko dira, nahiz eta irakaslearen liburuan ere erreferentzia egingo zaien. Erabakia irakaslearen eskuetan dagoenean, berriz, material osagarria liburu honetan bakarrik azalduko da. Erabili nahi izanez gero, fotokopiatu egin behar da.

### **C. MOBY DICK**

- Narrazioak idazteko hainbat hizkuntz baliabide baliagarriri erreparatu
- Narrazioaren azterketa (17. or. irak. lib.) (18. or. ik. lib.)

**IRAK/GRAM**

### **D. NARRAZIO- -TESTUAK SORTZEN**

- Abestiaren egitura narratiboa identifikatu
- Narrazio-testuak sortu (22. or. irak. lib.) (26. or. ik. lib.)

**IDAZ**

### **O S A G A R R I A K**

#### **DASTATU LITERATURA: KOMIKIAK**

- Testuinguruko arrastoei jarraitu: hitanoa
  - Adierazpideak: harridurazko esaldiak (40. or. ik. lib.)

**IRAK**

### **IKASLEEN AUTOEBALUAZIOA**

(35. or. ik. lib)



# 3. IKASTUNITATEAREN EDUKIAK ETA HELBURUAK

## HELBURU NAGUSIA

---

- Bertso batzuetatik abiatuta narrazio-testu bat sortzea, horrelako testuek izaten dituzten hainbat ezaugarri kontuan harturik.

## LEXIKOA

---

- Ternua, barra, eskualdea, negulekua, ustiaketa, armarria, aztarna, otea, sastraka, luzera, zabalera, pisua, trainerua, lema, arpoia, txabolina, unama, estatxa, tornua, txirrika, marrua, gerria, gerruntzea, saihetsa, buztana, ezpaina, bizarra, murgildu, hozka egin, urtu, ziztatu, erditu, ugaldu, odolustu, begiztatu, inguratu, atzeman, zatikatu, laurdendu, lehorreratu, zirtzikatu, metatu, oldartu, larrutu, balea-arrantza, arrantza-mota, bale ontzia, arra, emea, konkorra, gangarra, matrail-hezurra, orbaina, bahea, baraila, ostioloa, ernalketa, elikagaia, murgialdia, ezkutapena, marrazoa, zeroia, bizkarroia, ur-emia, ur-azala. \*

## MINTZAGAIA

---

- Euskal balearen arrantza

## ELKARRERAGINA

---

- Gaiari buruzko informazioa biltzea (B1) (B3)
- Eragozpenen aurrean, komunikazioari laguntzeko estrategia eta baliabideak ezagutzea eta praktikatzea (B3)

## KOMUNIKAZIORAKO AZPITREBETASUNAK

---

- Aurrezagutza aktibatzea (A) (C)
- Entzundakoaren xehetasunak jasotzea (B2)
- Elkarren laguntzaz, ulertzeko arazoak konpontzea (B2)
- Ulertutako informazioa prozesatzea (B2)
- Ekintzak deskribatzeko oinarritzko hiztegia ikastea (B3)
- Iturri desberdinetatik gai berberari buruz jasotako informazioa erkatzea eta sintesi koherentea egitea (B3)
- Abestiaren esanahia aztertzea (D)

## GRAMATIKA ETA DISKURTSOA

---

- Deskribapen zientifikoa koherenteki ordenatzea, datuen hierarkia kontuan hartuz (B1)
- Narrazio-testua aztertzea (C)
- Abestiaren egitura narratiboa ateratzea (D)
- Narrazio-testuak sortzea, markatutako ildo bati jarraituz (D)

## EUSKAL KULTURA/GIZARTEA

---

- Orioko balearen bertsoak
- Euskal balea

\* Unitate honetan hitz berri ugari azaltzen direnez, ulertzea baino ez diegu eskatuko ikasleei.



# ATAZA: ORIOKO BALEAREN BERTSOAK 165'

## Helburuak:

- Egitura narratiboa duen abesti bat entzun eta marrazkiak ordenatzea
- Helburuak eta ikastunitatearen amaieran eskatuko zaien produktua zein izango diren jakinaraztea
- Euskal balearen gainean dituzten aurrezagutzak plazaratzea

## Zertan den:

- Ataza honek, ikastunitateko lehenengoa izaki, girotea eta egin beharreko lanaren nondik norakoan berri ematea du helburu. Benito Lertxundiren abestia izango da ikastunitateari hasiera emango diona, eta baita, bestelako hainbat ariketaren buruan, amaiera emango diona ere. Bi mutur horien arteko ibilbide didaktikoaren funtsa eta onuragarritasuna argiago ikusiko dute, baldin eta helburuak hasieratik ondo azaltzen badizkiegu. Abestiaren ulerkuntzari dagokionez, garbi dago lehenengo une honetan nahiko azalekoa izango dela, marrazki batzuk ordenatzera mugatzen baita ikasleen eginkizuna. Bestalde, gaiaren lanketari ekin aurretik (hori izango da B saileko atazen helburua) komeni da aurrezagutzak plazaratzea.

## PROZEDURA:

1

### Atazaurrea: bideoko egoera aurreikusi

- Ikastunitatearen gaia aurkezteko, Benito Lertxundik cyber-tabernara egindako bisita aprobeztatuko dugu. Modu horretan, erabat berria den gaia lehendik ezaguna duten testuinguru batean agertuko zaie, eta honela, jautzia errazago egin ahal izango dute.

### Atazaurrea

- Esaiezu ikasleei euren liburuko lehendabiziko lau argazki horiek ikusi eta hasierako aurkezpena irakurtzeko adi-adi. (3')
- Saia zaitetz Benito Lertxundiri buruz dakitena ateratzen, modu informalean eta gehiegi luzatu gabe. (5')
- **1. bideo-pasartea** ikus-entzun aurretik, azal itzazu ariketaren nondik norako nagusiak eta utz iezazkiezu hiruzpalau minutu hamar esaldi horiek irakurtzeko. (4')

### Ataza: bideoa ikus-entzun eta egia/gezurra erabaki

- **1. bideo-pasartea** lehenengoz ikus-entzungo dute. Hamar esaldietan agertzen diren puntuei buruzko informazio edo datuak atera ahala oharren bat hartzen ahalegindu beharko lukete ikasleek, zeren eta dena azkenerako utziz gero, gauza asko pilatuko baitzaizkie. (10')

### Feedbacka

- Binaka jarrita, ikasleek hamar esaldiak aztertuko dituzte, eta egia diotenak aukeratu. Aukeratutako esaldiak ariketaren amaierako koadroan berridatziko dituzte. (10')
- Irakaslearen gidaritzapean, **1. bideo-pasartearen** interpretazioa eztabaidatuko da. Denon artean komentatu zein izan diren aukeratutako esaldiak, zein baztertuak, zergatik, etab. Puntu ilun asko dagoela ikusten baduzu, bigarren aldiz ikus-entzuteko aukera eman beharko zenieke. (15')

ZUZENKETA - ORRIA

Egia: 2. 3. eta 8. esaldiak

## 2

### Atazaurrea: marrazkiak ordenatu

- Benito Lertxundiren Baliaren bertsoak izeneko abestiari irudiak ipini dizkiogu, bertso bakoitzari berea. Ikasleek esku artean duten orrian, halere, marrazkiok erabat desordenatuta daude. Esaiezu, binaka jarrita, marrazkien artean hari narratibo bat bilatu eta marrazkiok ordenatzen saiatzeko. (5-10')

### Ataza: Abestia entzun eta aurreikuspenak egiaztatu

- Aurreko puntuko eginkizun berberari heldu beharko diote beste behin, baina, oraingoan, abestia entzuteko aukera izango dute. Abestia entzun ahala, aurreko puntuko hurrenkera-proposamena aldatu, findu edo berresten saiatuko dira. (5')

### Feedbacka

- Abestia entzun ostean bil daitezela berriro lehengo bikoteetan eta komenta ditzatela hurrenkera-proposamen berriak. (5')
- Irakaslearen gidaritzapean, eta bikote ezberdinen proposamenetatik abiatuta, eztabaidatu guztion artean, harik eta erantzun zuzenera iritsi arte. (5-10')

### ZUZENKETA - ORRIA



### Atazaostea: azken ataza aurkeztu eta gaiari buruzko ezagutza plazaratu

- Ikastunitateko azken ataza aurkeztu: euskal baleari eta euskal balea-arrantzaleei buruzko informazioa bildu ostean, bertso horietako gertakaria beste modu batera berridaztea, narrazio moldean, hain zuzen ere. (5')
- Esaiezu ikasleei komenta dezatela, hiruak bilduta, euskal balearen inguruan dakiten edo entzun duten guztia. Saia daitezela informazio hori guztia proposatutako eskemara biltzen. (10-15')
- Talde bakoitzak, labur-labur, bildutako informazio horren berri emango du talde osoaren aurrean. (10')

### BALIAREN BERTSOAK \*\*

Mila bederatzieun  
da leenengo urtian  
maiatzaren amalau  
garren egunian  
Orioko erriko  
barraren aurrian.  
Balia agertu zan  
beatzik aldian.

Aundia ba zan ere  
azkarra ibillian.  
Bueltaka an zebillen  
juan da etorrian.  
Ondarra arrotuaz  
murgil igarian.  
Zorriak zeuzkan eta  
aiek bota naian.

Ikusi zutenian  
ala zebillela

beriala joan ziran  
treñeruen billa.  
Arpoi ta dinamitak  
eta soka billa.  
Aguro ekartzeko  
etzan jende illa.

Bost treñero juan ziran  
patroi banarekin.  
Mutil bizkor bikainak  
gutziz onarekin.  
Manuel Olaizola  
eta Loidirekin  
Uranga, Atxaga ta  
Manterolarekin.

Baliak egindako  
salto ta marruak  
ziran izugarri ta  
ikaratzekuak.

Atzera egin gabe  
ango arriskuak  
arpoiakin il zuten  
an ziran angoak.

Bost txalupa jiran da  
erdian balia  
gizonek egin zuten  
bai naiko pelia.  
Ikusi zutenian  
ila edo itoa  
legorretikan bazan  
biba ta txaloa.

Amabi metro luze  
gerria amar lodi  
buztan palak lau zabal  
albuetan palak bi.  
Ezpañetan bizarrak  
beste illera bi

orraziak bezala  
ain zeuzkan ederki.

Gorputzez zan milla ta  
berreun arrua.  
Beste berreun mingain  
ta tripa barruak.  
Gutxi janez etzegen  
batere galdua.  
Tiñako sei pezetan  
izan zan saldua.

Gertatua jarri det  
egiaren alde.  
Au orrela ez bada  
jendeari galde.  
Biotzez pozturikan  
atsegintsu gaude.  
Gora oriotarrak  
esan bildur gabe.

# ATAZA: INFORMAZIOA BILTZEN

## B.1. Ataza: EUSKAL BALEA EZAGUTZEN 70-85'

### Helburuak:

- Euskal baleari buruzko informazioa biltzea
- Hitz edo kontzeptu ezezagunak komunikazioa eragotzen dutenean, aurrera jarraitzeko erabiltzen diren estrategia eta baliabideak aurkeztea eta praktikatzea (birformulatzen eta argibideak ematen trebatzea).
- Deskribapen zientifikoa koherenteki ordenatzea, datuen hierarkia kontuan hartuz.

### Zertan den:

- Ataza honetan euskal balea ezagutzeko lehenengo urratsak ditugu. Elhuyar aldizkaritik hartutako testu zientifiko bat izango dugu abiapuntua. Testu horrekin proposatutako lanketak hiztegiaren azterketa, testu-analisia eta komunikazio-estrategien garapena uztartzen ditu.

### PROZEDURA:

#### 1

#### Atazaurrea: testu-zatiak irakurri eta ahozko azalpena prestatu

- Elhuyar aldizkarian \*\*\* argitaratutako artikulua bost zatitan banatu dugu (ikus 3.1 eranskinean bost fitxak). Bost zatiok euskal balearen ezaugarri nagusien berri ematen digute, zientzi arloan ohi den hizkera zehatz eta neutroan.
- Ikastaldea ere bost taldetxotan banatuko dugu, hartara taldetxo bakoitzak testu-zati horietako batekin egingo du bere lana. Taldetxo guztiek, dagokien testu-zatiarekin batera, testu osotik ateratako hainbat hitz ere aurkituko dituzte. Hitz-zerrenda hori berbera izango da talde guztientzat, eta baleari buruz ikuspegi zientifiko batetik jarduteko oinarri-oinarrizko euskarri lexikala eskainiko digu.
- Ikasleek testu-zatiak irakurriko dituzte, eta ondorengo hiru eginkizunok beteko:
  - Batetik, testu-zati horri izenburu labur bat ipiniko diote, testutxoko gaiaren berri emango diguna;
  - bestetik, proposatutako hitz-zerrendako zenbait hitz azpimarratuko dituzte, hain zuzen ere eurek irakurritako zatian agertzen direnak; eta
  - azkenik, irakurritako testutxoaren ahozko azalpena egiteko prestatuko dira, kontuan izanda zerrendako hitz ikasi berri horiek erabiltzen eta azaltzen ahalegindu beharko dutela. (10')
- ! **Oharra:** testuen ulermena ziurtatu aurretik, ez egin aurrera. Testuak eta zerrendarako aukeratutako hitzak ulertzeko arazoak baldin badituzte, galde diezaietela taldeko kideei edota jo dezatela entziklopedia edo hiztegiatara. Testuak behar bezala ulertzen ez badituzte, ezin izango dituzte ahozko azalpenak egin.
- Ahozko azalpena prestatzeko, irakur eta azter dezatela Komunikazioari eutsi izeneko orria (ikus ikaslearen liburua 12. or.). Ea hor azaltzen diren baliabideak euren azalpenetan erabiltzeko gai diren. (10')

- ! **Oharra:** Irakasle bakoitzak ikusiko du azalpen hori nahikoa den edo argibide gehiagorekin indartu behar duen, batez ere errejistro-mailari dagokionez. (Adibidez, hots eta hau da ez dira baliokideak errejistro guztietan. Hau da egokiagoa izan daiteke hots baino errejistro informal batean.). Hala ere, ohartarazi ikasleak komunikazio-estrategia hori ondo prestatzearen garrantziaz. Horrez gain, eta ikasleek ondo gauza dezaten, ibil zaitez taldez talde laguntza ematen.

\*\*\* Mendizabal, Mikel 1995 Euskal balea, mito baino gehiago. In: Elhuyar aldizkaria, 96: 10-13. orr.

## Ataza: azalpena taldetxotan

- Testu-zati desberdinekin lan egindakoan, bosna laguneko talde berriak eratuko ditugu. Txandan-txandan ikasle bakoitzak bere azalpena egingo du taldekide berrien aurrean. Azalpen horretan, lehendabizi, testu-zatiari ipinitako izenburua irakurriko dute eta, ondoren, testuaren berri emango dute prestaketa-fasean ezarritako ildotik. **(10-15')**

## Azalpena

- Aurreko puntuan talde txikietan egin duten ariketa berbera egin beharko dute ikasleek berriro, baina oraingoan talde osoaren aurrean. Ariketa gehiegi ez luzatzearen, egokiena da testu-zati bakoitzarekin azalpen bat besterik ez egitea; bost azalpen, beraz, talde ezberdinetatik geuk aukeratutako bost ikaslek egin beharrekoak.

## Feedbacka

- Azalpen bakoitzaren amaieran, egindako ariketaren feedbacka emango zaio ikasleari. Feedback horren ardura irakasleak ez ezik ikasleek ere hartu beharko lukete beren gain. Honako puntuoi erreparatuko diegu **(25-30')**, besteak beste:
  - Proposatutako izenburuaren egokitasuna.
  - Azalpenaren argitasuna edo ulergarritasuna.
  - Lexiko berriaren tratamendua (erabili dituen errekurtsoak, arazoak, etab.).
  - Jarioaren, zuzentasunaren eta aberastasunaren aldetik azpimarratzekoak izan daitezkeen puntuak oro.
  - Talde osoaren aurreko azalpenean erregistro normalagoa erabiltzea.

## Atazaostea: landutako testu-zatiak ordenatu

- Ariketa hau burutzeko, bost testu-zatiak biltzen dituen orrira joko dute ikasleek, oraindik irakurri gabe dauzkaten lau zatiak irakurtzeko. **(5')**
- Berriro lehengo boskoteetan bilduta, bost zatiak ahalik eta modu koherenteenean ordenatzen saiatuko dira. **(5')**
- Talde ezberdinen proposamenak aurkeztu, arrazoitu eta guztion artean eztabaidatu. **(5-10')**
- Jatorrizko testuan nola ordenatuta zeuden esan. (Ordena: **2, 4, 3, 1, 5**)



# ATAZA: INFORMAZIOA BILTZEN

## B.2. Ataza: EUSKALDUNAK BALEAREN ARRANTZAN, HAINBAT JAKINGARRI 60-65'

### Helburuak:

- Bideo-pasarte batetik balearen arrantzari buruzko informazioa aberastea, mapa semantikoaz baliatuz.
- Elkarren laguntzaz ulermen-arazoak konpontzea.
- Ulertutako informazioa prozesatzea.

### Zertan den:

- Ataza honetan bideo-dokumentu bat erabiliko dugu balea-arrantzari buruzko hainbat jakingarri emateko. Entzute-ariketa honetan berebiziko garrantzia eman diegu honako bi ulermen-estrategiei: informazioaren egituraketari (mapa semantikoa) eta ikasleen arteko elkarlanari (elkarri lagunduz ulertu).

### PROZEDURA:

1

#### Atazaurrea: bideo-pasartearen edukia aurreikusi eta egituratu

- Ariketari ekin aurretik, komeni da irakasleak zenbait argibide ematea, ikasleen arreta pizteko, bideo-dokumentuaren kontestua ezagutzeko eta egin beharreko lanaren tamainaz eta nolakoaz jabetzeko. Argibideotan honako puntuok azaldu beharko lirateke (3'), besteak beste:
  - solaskideen aurkezpen laburra (Andoni Aizpuru eta Joxe Antonio Azpiazu),
  - bideo-grabazioaren formatoa: elkarrizketa,
  - grabazioaren iraupena: 3'15' (berez, luzeagoa den elkarrizketa baten zatia),
  - grabazioaren kontestua (Oriñonen balea agertu zen garaiko elkarrizketa),
  - jorratuko dituzten gaiak zein diren eta horietan zenbateraino sakontzen den,
  - solaskideen hizkerak (abiadurak, euskalkiak) sor ditzakeen arazoak aipatu,
  - egin beharreko ariketaren nondik norako nagusiak (ariketaren prozedura, helburuak, eskakizun-maila, etab).
- Ikasleek 2. bideo-pasartearen mapa semantikoa aurkituko dute beren liburuxkan. Oso litekeena da ikasleek mapa horretako hitz bat baino gehiagoren esanahia ez jakitea. Horrela balitz, esanahi horiek argitzen saiatu beharko zenuke, beti ere gehixeago dakiten ikasleen iradokizun eta ekarpenak kontuan hartuta. (5')

! **Oharra:** Mapa semantikoa elkarrizketa egituratzeko saiakera bat baino ez da. Elkarrizketaren azpigai nagusiak eta hitz gakoak erabili ditugu oraingoan egituratze-lan horretarako.

#### Ataza: lehenengoz ikus-entzun eta informazioa bildu

- 2. bideo-pasartea (ikus 3.3. eranskinean pasartearen transkripzioa) lehenengo aldiz ikus-entzun. Esaiezu ikasleei, lehendabiziko ikustaldi honen ondoren, mapa semantikoko puntuei buruz ulertu dutena idatziz adierazten saiatu beharko dutela. Beraz, egon daitezela adi eta errepara diezaiotela bereziki puntu horien inguruko informazioari. (5')

! **Oharra:** Segun eta nolakoa den zure ikasleen ulermen maila, bi aldiz ikusi beharko dute bideo-pasartea aurrera egin aurretik. Izan ere, bi solaskideek (Andoni Aizpuru eta Joxe Antonio Azpiazu) oso azkar hitz egiten dute eta ikasle batzuei kostatzen zaie ulertzea.

- Lehenengo ikustaldia bukatutakoan, ikasleak binaka jar daitezela eta, zer ulertu duten komentatu ondoren, idatz ditzatela zortzi esaldi, mapa semantikoko puntu bakoitzaren gainean bat. Esaldiotan, bideo-pasartean ulertu dituzten ideiak edo informazio garrantzitsua islatzen saiatu behar dute. (10-15')
- Launaka bilduta, bikoteetan egindako lana komentatuko dute ikasleek (zer ulertu duten eta nola, zein esaldi idatzi dituzten, ilun geratu zaizkien kontuak, etab).(10')
- Guztion artean eta irakaslearen gidaritzapean, bikoteetan eta taldetxoetan idatzitakoa eta komentatutakoa berrikusiko dute. Puntu ilunik balego, bigarren ikustaldirako utziko dugu horiek argitzea.(15')

#### Feedbacka: bigarren aldiz ikus-entzun eta zalantzak argitu

- 2. bideo-pasartea bigarren aldiz ikus-entzun. Saia daitezela lehenengo ikustaldian ulertutakoa berresten eta aurreko puntuan jasotako zalantzak argitzen.(5')
- Guztion artean argitu ilun zeuden alderdi guztiak. (5')

# ATAZA: INFORMAZIOA BILTZEN

## B.3. Ataza: ARRANTZAKO TEKNIKA 55-60'

### Helburuak:

- Antzinako balea-arrantzako teknikari buruzko informazioa biltzea.
- Langintza horretako ekintzak deskribatzeko behar den oinarriko hiztegia aurkeztea eta ikastea.
- Iturri desberdinetatik gai berberari buruz jasotako informazioa erkatzea eta sintesi koherente bat egitea.

### Zertan den:

- Azken atazari begira onuragarri izango zaielakoan, garai batean balea nola harrapatzen zuten erakutsi nahi izan dugu ataza honetan. Langintza edo lan-modu horren berri emateko, gutxieneko hiztegi bat behar denez, arreta berezia jarri dugu lexikoaren lanketan. Bestalde, iturri desberdinak erabilita, ikasleen arteko negoziazio eta sintesi-ahalegina bultzatu nahi izan ditugu.

### PROZEDURA:

## 1

### Atazaurrea

- Hasteko, National Geographicen dokumental batetik ateratako irudiak ikusiko ditugu, ahotsik gabe. \*\*\*\* Pasarte labur horretan (minutu bat eskas), antzina balearen arrantza nola egiten zen ikusten da. Etsaiezu ikasleei arrantza-mota horren gorabehera teknikoak aztertzea dela atazaren helburu nagusia. (10')



**IRAK. LIB. 4.2.** Aukeran: Ikasleen aurreikuspenak lantzeko, Talaiak izeneko entzute-ariketa duzu 4.2. material osagarrian; bertan B3 atazan landuko diren hainbat kontu agertuko dira.

Ariketa osagarri hau bi momentu didaktiko ezberdinetan erabil daiteke.

- Momentu honetan, C atazaren atazaurrean, gaia girotu eta ikasleen ulermena errazteko.
- Edota, C atazaren bukaeran, ikasitakoa sendotzeko. Momentu honetan eginez gero, aurreikuspenak lantzeko denez agian errazegia gerta daiteke.

### Ataza: testuak irakurri eta ekintzak ordenatu

- Hiru iturri ezberdinetatik hartutako hiru testutxo ditugu ariketaren abiapuntu (3.2. eranskinean hiru fitxak aurkituko dituzu fotokopiatzeko). Hiru testuak gai berberari buruzkoak dira: antzinako balea-arrantzale euskaldunen teknika, nola harrapatzen zuten balea eta zein ziren langintza horren urratsik aipagarrienak. Testu bakoitzarekin batera, testutik ateratako aditz edo ekintza guztiak izango dituzte ikasleek, biribil batean modu desordenatuan bilduta. Banatu hiru testuak ikasleen artean (ikasle bakoitzari testu bat baino ez).
- Ikasle bakoitzak, bere testua irakurri eta gero, biribil barruko ekintzak Taula kronologikora ekarri beharko ditu, hau da, ekintza horiek guztiak zein hurrenkeratan gertatzen ziren azertu. (20')

**! Oharra:** aldi berean gertatzen diren ekintzak edo sinonimoak direnak lauki berean sartuko dira.

- Ikasleak hiru laguneko taldetxotan bilduko ditugu. Talde bakoitza testu ezberdinekin jardundako hiru lagunek osatuko dute, eta egindako lanaren berri emango diote elkarri. Egindakoa ondo azertu ondoren, hiruren artean beste taula bat prestatuko dute, osoagoa, hiru taulen ekarpenak bilduko dituen. (15')

### Feedbacka

- Zuzenketa irakaslearen gidaritzapean egingo da, ikasle guztien ekarpen, zalantza eta iritziak kontuan hartuta. Talde batek prestatutako taulatik abiatu eta egin beharreko ohar eta kritika guztiak horren gainean egitea litzateke zuzenketa-fase hau bideratzeko modu bat. (10-15')

\*\*\*\* National Geographic 1992 Balea handiak. Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Saila eta Tripp Pictures.

## ZUZENKETA - ORRIA

## TAULA KROLOLOGIKOA

1

## NORK BERE TESTUKOAK



	1. Gizaseme aditu bat kontratatu
	2. Balea begiztatu
	3. Sua piztu/herritarrei adierazi
	4. Danbolina jo/kanpaiak jo/albistea zabaldu
	5. Portu aldera jaitsi
	6. Prestatu eta atzematera atera/txalupak itsasora abiatu
	7. Animaliairen inguruan zirkulua osatu
	8. Erasorako prestatu
	9. Balea inguratu
	10. Arpoia botatzeko agindu
	11. Arpoia bota
	12. Balea kateatu
	13. Txabolinekin ziztatu
	14. Balea odolustu
	15. Balearen azpitik soka luzatu
	16. Itsasertzera hurbildu
	17. Itsasgora izan arte itxaron
	18. Balea lehorreratu
	19. Txirrikaz porturaino igo
	20. Balea larrutu
	21. Balea zatikatu
	22. Balea-zatiak labeetara eraman
	23. Balea-zatiak urtu



**IK. LIB. 4.1.** Ikus ikaslearen liburuan 4.1. material osagarrian, Norteko ferrokarrila: Balea, ariketa, ikasleek gaia edota entzunezko ulermena euren kabuz lan dezaten. Anima itzazu ikasleak, bada, txandan-txandan irratsaioa entzutera. Gogoratu zuk duzula audio-zinta, eta, eskaeren arabera, kopiaren bat egin beharko duzula. Irratsaioaren transkripzioa 3.4. eranskinean aurkituko duzu.

Aukeran: **IRAK. LIB. 4.2.** Atazaurrean landu ez baduzu orain duzu une egokia Talaiak izeneko entzute-ariketa erabiltzeko; bertan B.3. atazan landutako hainbat kontu agertuko dira.





# ATAZA: MOBY DICK 305'

## Helburuak:

- Narrazioaren gaineko aurrezagutza azalratzea.
- Narrazio-testua aztertzea.
- Besteri narrazioaren hizkuntz baliabideak azaltzea.

## Zertan den:

- Ataza honetan, ikastunitatearen azken ataza ganoraz burutu ahal izateko, narrazio-testua aztertuko dute ikasleek. Unitateko azken atazaren helburua bertso-testua narrazio eran berreraikitzea da, ukitu literario batez jantzirik gainera. Horretara heltzeko, eta ikasleak esku hutsik abia ez daitezen, nahitaezkoa da narrazioaren inguruko gogoeta, batetik, eta beharrezko hizkuntz baliabideen azterketa, bestetik.
- Azterketa horretarako, proposatu dugun bidea indukzioa da: irakasleak azalpenak eman beharrean, ikasleak, euren esperientziatik abiatuta, ondorio eta sintesira iritsiko dira, pausoz pausoko bideari jarraituz. Hala ere, irakaslearen laguntza ere beharko dute ibilbide horretako hainbat unetan.

## PROZEDURA:

### 1

#### Atazaurrea \*\*\*\*\*

- Galdetu ikasleei narrazioei buruz:
  - zer diren,
  - non azaltzen diren,
  - nolako gertaerak kontaktzen dituzten: benetakoak, fikziozkoak,...
  - adibideak aipatzeko. (10')

**! Oharra:** Ariketa honek ez du azterketa sakona helburu, ikasleek oharkabean eskolatik dakitena edo inferi dezaketena ateraraztea baino. Beraz, ez iezaezu behar baino denbora gehiago eman.

#### Ataza: mintzatu eta grafikoa bete

- Pauso honen xedea ikasleek jakinaren gainean eta oharkabean dakitena modu arinean azaltzea da. Hirunaka jarrita, honako puntuez zer dakiten esango dute. Ez du azterketa sakonik eskatzen. (10')

**! Oharra:** ataza honetan ikasleei lagundu beharko diezu eta behin baino gehiagotan azpimarratu narrazioaren ezaugarriak zehazterakoan “normalean” edo “gehienetan” dituen ezaugarriei buruz ari garela.

\*\*\*\*\* Ataza honen edukiari buruz gehiago irakurri nahi baduzu, hona hemen lagunduko dizuten irakurgaiak:

- Abasolo et al. 1996 Esaizu. Euskal Hizkuntza eta literatura. Irakaslearen gida didaktikoa. DBH 1-2. Erein. 62-82.orr.
- Plazaola, I. 1990 Ipuin kontaketa euskaraz: aditzaren funtzionamenduaz zenbait elementu In: Idiazabal et al. 1990 Hizkuntzaren psikopedagogia. Labayru.



## ZUZENKETA - ORRIA

Narrazioak, batez ere literarioak, era askotara idazten badira ere, ondoko galderei erantzuterakoan saia zaitezte **kasu gehienetan** erabiltzen diren ezaugarriak zehazten.

a) Zertarako idazten dira narrazioak? Aukera itzazue ondokoen artean.

- |   |  |
|---|--|
| <input type="checkbox"/> informatzeko                           | <input checked="" type="checkbox"/> intriga sortzeko                             |
| <input checked="" type="checkbox"/> gozamen estetikoak sortzeko | <input type="checkbox"/> irakurlea gogoeta egitera bultzatzeko                   |
| <input type="checkbox"/> iritzia emateko                        | <input checked="" type="checkbox"/> irakurlearen interesa sortu eta hari eusteko |

b) Nola antolatzen da narrazio-testua? Hau da, zenbat zati ditu?

1. Hasierako egoera
2. Korapiloa
3. Azken egoera

c) Egileak zein ikuspuntutik kontatu ditzake gertakariak? Horrek ze isla du erabilitako pertsona gramatikalean?

- Idazleak pertsonaia baten ikuspuntua har dezake ✍️ 1. pertsona
- Narratzaile neutroa izan daiteke ✍️ 3. pertsona

d) Zein izaten da, normalean, kontatzeko ordena?

- |   |  |
|---|--|
| <input type="checkbox"/> saltoka-maltokakoa | <input checked="" type="checkbox"/> kronologikoa |
| <input type="checkbox"/> atzera begirakoa   | <input type="checkbox"/> paraleloa               |

e) Zein izaten da, normalean, euskaraz erabiltzen den aditz-denbora?

- iragana

## Feedbacka

- Bukatutakoan, hirukote bakoitzak erabakitakoa azalduko du denen aurrean. Punturen batean ados ez badaude, egindako aukerak arrazoitu beharko dituzte eta beren artean eztabaidatu akordio batera iritsi arte. (10')

## 2

Hurrengo atazan ikasleek Moby Dick liburuaren bi pasarteri erreparatuko diete (A eta B testuak). Lehenengo pasarterekin (A testua) kontestua hobeto ulertzen lagundu nahi diegu eta horrexegatik, hasiera batean, globalki ulertzearekin nahikoa izango dute ikasleek. Ondorengo lana, berriz, A eta B testuetan hainbat baliabide aztertzea izango da.

## Atazaurrea: aurrezagutzak

- Irakurri beharreko pasarteak nahiko zailak direnez, ikasleen aurrezagutzak abian jarriko dituzu ikaslearen liburuko koadroaren bidez ea denen artean Moby Dick-en istorioaren nondik norakoak osatzen dituzten, pasarteak hobeto uler ditzaten. (10') \*\*\*\*\*

\*\*\*\*\* Hemen duzu Lur Hiztegi Enziklopedikoak Herman Melvilleri buruz dioena.

Melville, Herman. Estatu Batuetako eleberrigilea (New York, 1819 - New York, 1891). 1841ean, Hegoaldeko Itsasoetan barrena ibili zen balea harraparien itsasontzi batean. Markesa uharteetan ontzitik ihes egin eta lau urtez egon zen Taipin, hango biztanleekin bizitzen. Ondoren, New Yorkera itzuli eta bere abenturak idazten hasi zen. Garai hartakoak dira: Typee (1846), Omoo (1847), Mardi (1849), Redburn (1849) eta White jacket (1850, Jaka zuria). 1850ean, N. Hawthorne ezagutu zuen eta eragin handia izan zuen Melvilleren idazkeran. Orduan hasi zen bidaia alegoria modura azaltzen, eta itxuren eta errealitatearen arteko loturak aztertzen. 1851an, Moby Dick, haren eleberririk nagusia, argitaratu zuen. Eleberririk ez zuen batere arrakastarik izan, garai hartako gizarteak eta



- B.3. atazan aipatutako bideoan, \*\*\*\*\* Moby Dick filmaren pasarte bat azaltzen da. Jarriazu ikasleei ikus dezaten. (5')
- Ikasleek Moby Dick-en lehenengo pasarte (A testua) irakurri aurretik, ulermen-galderak irakurriko dituzte. (5')

### Ataza: irakurri eta galderen erantzuna pasarteaz bilatu

- A testua irakurtzerakoan, galderen erantzunen bila arituko dira ikasleak. (10')
- Binaka jarri, ulertutakoa alderatuko dute. (10')

### Feedbacka

- Denen arteko feedbacka egin. (10')

## 3

### Atazaurrea

- Moby Dick-en bigarren pasarte (B testua) irakurri aurretik, ikasleei ataza zertan den ondo azalduko diezu: Ikaskideak ulertu duela egiaztatuko dute, horretarako bi ulermen-galdera prestatuz. (5')

### Ataza: irakurri eta ulermen-galderak prestatu

- B testua irakurri eta informazio garrantzitsua erabakiko dute bakarka. (10')
- Ikaskideak informazio hori ulertu duela egiaztatzeko bi ulermen-galdera prestatu. (5')
- Binaka jarrita, galderak elkar trukatu eta galderei erantzun. (10')

### Feedbacka

- Irakasleak testua ulertu dutela egiaztatuko du. Izan ere, irakurritako bi testuak (A eta B) hurrengo atazan aztertuko dira eta komeni da ikasleek ondo ulertzea. (5')
- Ikasleek ataza bera aztertuko dute: ea denek antzera ulertu duten, antzeko galderak prestatu dituzten, etab. (5')

## 4

### Atazaurrea

- Ikasleak launaka jarri eta ataza zertan den azalduko diezu.
- Taldekide bakoitzak egokitzen zaion testuan baliabide bakarra aztertuko du: zer den, zertarako erabiltzen den eta testuan aurkitutako adibideak,... Lau baliabide daude: erritmoa (A testuan aztertzekoa), ordezkapena (B testuan aztertzekoa), izenordainak erabiltzea (B testuan aztertzekoa) eta denbora-antolatzaileak (B testuan aztertzekoak).
- Ikasleei esan egokitu zaien baliabidea aztertzerakoan ez dutela azterketa erabatekorik egin behar, adibide batzuk bilatzea nahikoa dela. (10')

kritikak ez baitzuten ulertu. Melvilleren hurrengo eleberririk ere, *Pierre or the ambiguities* (1852), ez zuen harrera onik izan. Melvillek ordea idazten jarraitu zuen: *The piazza tales* (1856) ipuin liburua, *Bartleby the scrivener* (1853, *Bartleby* izkribatzailea, Juan Garziak euskaratua), *Benito Cereno* (1855), *Israel Potter* (1855) eta *Bylly Budd sailor* (1924, *Billy Budd* mariñela), hil ondoren argitaratua. Melville baztertua eta pobrezian hil zen. Urte askotan ahaztua egon zen, baina 1920 inguruan berraurkitu zen bere obra; haren eleberririk maisu lantzat hartzen dira gaur egun. Eragin handia izan du XX. mendeko eleberrigintzan.

\*\*\*\*\* National Geographic 1992 Balea handiak. Eusko Jaurlaritza eta Tripp Pictures.



## Ataza: testua aztertu eta egindakoa taldekideen aurrean aurkeztu

- Ikasleek dagokien baliabidea identifikatu, azpimarratu eta taulan jasoko dute. (20')
- Baliabide horren azalpena egingo dute taldekideen aurrean: baliabidearen definizioa, zertarako erabiltzen den, testuan aurkitutako adibide kontestualizatuak. (40')

### Prestaketa

- Beste taldeen aurreko azalpena ondo prestatuko dute, bai gaia ondo antolatuz eta bai euren euskara zainduz ere. Puntu honetan ere komeniko litzateke ikasleei euren azalpenerako gardengailua erabiltzeko aukera ematea. (20')

### Azalpena

- Lan-talde bakoitzaren azalpen-unea momentu egokia izan daiteke hainbat zalantza-eta argitzeko. Anima itzazu ikasleak parte hartzera, emaezu bidea euren ekarpenak, zalantzak plazaratzeko.
- Azalpena aspergarria gerta ez dadin, talde bakoitzak lau baliabideak aurkeztu beharrean, baliabide bakarra aurkezten badu, interesgarriagoa egingo zaie. (30')

### Feedbacka

- Talde bakoitzak baliabidearen azalpena egin ostean, baliabide horri dagokion feedbacka bideratuko da irakaslearen laguntzaz. Gogoan izan baliabide bakoitzaren azterketak ez duela ustiakorra izan behar, eta adibide batzuk aipatzea nahikoa dela. (30')

## ZUZENKETA - ORRIA



### A TESTUA

#### 1. IKASLEA

#### • Erritmoa

Erritmoa mantsoagotzen da honako pasarte honetan:

- **Narratzailearen barne-egoera.** Ni, Ismael, ontzi hartako tostarteko bat nintzen; nire biraoak besteekin batu ziren, nire oihi eta deiadarrak besteekin adinakoak izan ziren... Baliteke beste guztienak baino indartsuagoak izatea nireak, barruan neukan beldurra estali edo nigandik urrutiratu nahi nuen eta. Achab-en gorrotoa itsatsi zitzaidan.
- **Egoera deskribatzen du.** Balea Zuria gu genbiltzan itsasoetan ibilia zen, noski. Baina gutxi ziren ikusi zutenak eta gutxiagok eraso zioten jakinaren gainean. Denbora asko igaro zen ezagun izatera heldu zen arteraino. Bale ontziak banaka ibili ohi dira, sarritan beste ontzi bat urte betean ikusi gabe. Horregatik gertaeren berriak geldiro zabaltzen dira. Moby Dick-en edestiak Pequod-eko marinel guztiei grina hazkuretsu bat sortu zien.
- **Moby Dick-en deskribapen fisiko eta psikikoa.** Uste haiek alde bateratuz ere, abere erraldoi haren izakera bera nahikoa zen edozein irudimen sutzeko. Handian, beste zeroi guztietatik bereizten zen, kopeta zimurra zuen, elurra bezalako zuritasuna zuen, konkorra jasoa eta txuntxur antzekoa, eta beheko matrail-hezurra okerra. Hala eta guztiz ere, bene-benetan izu-ikara sortzen zuena haren makurkeria zen; sarritan erakutsi zuen, ez gaiztakeria itsu bat, zitalkeria adimena baizik. Behin baino gehiagotan ihes zihoala itxura egiten zuen; eta oraintxe lasterkatzaleak harrapatua zeukatelakoan, su eta gar hasten zirenean, bat-batean bira bizkor bat egin eta haien txalupak hondora botatzen zituen batzuetan eta beldurrez airean baleontzira bihurtzen uzten zien bestetan.
- **Achab-en zorokeria.** (...) Hala ere, nahiz eta zuhurtu zela iruditu, Achab bere baitan lehen bezain zoro gelditu zen betiko. Hudson ibai zabala ziloketan estutu egiten da, baina ur-tanto bat bera ez du galtzen; horixe gertatzen zen Achab-en zorokeriarekin ere: hasieran gaingitua bezala zegoen; denborarekin bideratu egin zen eta joera bakar bat hartu zuen: Balea Zuriaren aurkako gorrotoa!



## ZUZENKETA - ORRIA

### B TESTUA

2. IKASLEA

#### ORDEZKAPENA


HITZAK	ORDEZKOAK
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Marrazoak</li> <li>• Moby Dick</li> <li>• Tostarteko</li> <li>• Balea-txalupa</li> <li>• Pequod</li> <li>• Arpoia</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Itsas abereak</li> <li>• Balea, aberea, zeroia, Balea Zuria</li> <li>• Marinel</li> <li>• Ontziska, txalupa</li> <li>• Ontzia</li> <li>• Burdina</li> </ul>

### B TESTUA

3. IKASLEA

#### IZENORDAINAKERABILTZEA

ERREFERENTEAK	IZENORDAINAK
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Marrazoak</li> <li>• Achab-en txalupako</li> <li>• Tostartekoen</li> <li>• Dagoo eta Queequeg</li> <li>• Balea</li> <li>• Tostartekoak</li> <li>• Fedallah-en</li> <li>• Achab-i</li> <li>• Balea</li> <li>• Achab</li> <li>• Balea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• haiek</li> <li>• hango</li> <li>• haien</li> <li>• beren</li> <li>• bere</li> <li>• guztiak</li> <li>• bere</li> <li>• honi</li> <li>• haren</li> <li>• bere</li> <li>• hau</li> </ul>



### B TESTUA

4. IKASLEA

#### DENBORA- -ANTOLATZAILEAK

- une hartan
- laster
- bezperan
- ordurako
- ... Moby Dick begiztatu genuenetik
- ... buztanarekin ura harrotzen zuen bitartean
- ... zuloak txantoltzen ari ziren bitartean
- ... albora heldu zenean

5

### Ataza

■ Moby Dick ataza honetan atera dira hainbat hizkuntz baliabide narrazioetan erabili ohi direnak. Ikasleek horien laburpena egingo dute. Ondoren, grafiko batean sailkatu eta bildu egingo dituzte. (20')

### Feedbacka

■ Talde ezberdinen lana gardenki batean bilduko dute irakaslearen laguntzaz. (15')



# ATAZA: NARRAZIO-TESTUAK SORTZEN



110-130'

## Helburuak:

- Abestiaren esanahia aztertzea cloze ariketa baten bidez.
- Abestiaren egitura narratiboa ateratzea.
- Narrazio-testuak sortzea markatutako ildo bati jarraiki.

## Zertan den:

- A atzarekin zubi eginez, Baliaren bertsoak berridazteari ekingo diogu orain. Lan horretan hasi aurretik, atariko batzuk programatu ditugu (abestiaren letra eta egitura aztertu, lehendabiziko bertsoaren berridazketa eredu gisa aurkeztu, etab.). Atariko horiek amaitu ostean, ikasleek euren testutxoak sortu beharko dituzte; baita zuzendu ere.

## PROZEDURA:

1

### Atazaurrea: aurreikuspenak

- Ikastunitatearen hasieran, A atazan, iragarritako lanari heltzeko garaia iritsia da. Esaiezu ikasleei ataza hartan entzundako abestira itzuli behar duzuela berriro; honezkero ondotxo jakin behar dute zein den abesti horrekin egin beharreko lana: bertsook prosazko narrazio bihurtu.
- Lan horri ekin aurretik, ordea, abestiaren letra aztertzea proposatuko diegu, bertsootako hitzak izango baitira lehenengo atazako irudiekin batera, gero egin beharreko lanaren euskarri nagusia. Beraz, hasteko, bil daitezela binaka eta saia daitezela abestian ezabatu ditugun hitzak asmatzen. (Erantzunak A zutabearen idatzi). (10')

**! Oharra:** Ezabatutako hitzak ikasleek erraz samar asmatzeko modukoak dira, ia guztiak; honetarako, alabaina, testuinguruari erreparatu beharko diote, ezinbestean. Eta horixe da, hain zuzen ere, jarduera honekin lortu nahi duguna: ikasleek bertsoen esanahia zehatz-mehatz aztertzea.

### Ataza: abestiaren letra osatu

- Ondoren, abestia entzuteko aukera emango diegu ikasleei. Hauek, adi-adi entzun eta hutsuneetan falta diren hitz horiek ateratzen saiatu behar dute. (10')

### Feedbacka

- Komeniko litzateke, erronda azkar batean, ikasle-bikoteek txandan-txandan, euren egindako hipotesien eta bertsoen egiazko letraren arteko gorabehera eta alde esanguratsuenen berri ematea klase osoaren aurrean. (10')

**! Oharra:** Aurrera jarraitu aurretik aukera oso polita daukazu bertso horietan agertu diren aldaera dialektalei buruzko azalpentxo bat emateko.

2

### Atazaostea: abestiaren egitura aztertu

- Ikasleek buruko neke handirik gabe asmatu beharko lukete abestiaren egituraren arrastoak aurkitzen. Errepasa ditzatela bederatzi bertsoak eta egin dezala ikasle bakoitzak kronikaren egituraren zirriborroa (modu grafikoan, euren orriko eskematxoaren gainean). (5-10')

### Feedbacka

- Guztion artean, irakaslearen gidaritzapean, proposamen desberdinak bildu eta eztabaidatu ondoren, proposamen bat adostera iritsi. (5-10')

## ZUZENKETA - ORRIA

BERTSOAK	EGITURA
1	Hasierako egoera: kokapena denbora eta espazioan
2-6	Ekintzen zerrenda
7-8	Erritmoa moteldu: deskribapena
9	Bukaera

### 3

#### Atazaurrea: eredia aurkeztu eta kontrol-zerrenda aztertu

- Bertsoak, prosa narratiboaren moldean, honela berridaztea proposatzen dugu: irakasleak, eredu gisa, lehendabiziko bertsoaren berridazketa aurkeztuko du; gainontzeko zortzi bertsoak ikasleen artean banatuko ditugu, bikoteko bertso bana,... euren berridazketak egin ditzaten. (10')
- Ikasleek euren liburuko Narrazioa idazteko kontrol-zerrendara jo eta guztien artean erabaki dezatela lehenengo puntua, ildo narratiboaren nondik norako nagusia lotuta izateko. Erabaki horrek idatzi beharreko testu-zati guztiak baldintzatuko ditu: kontatzailearen ikuspuntua, presentzia, elkarrizketarik izango den ala ez, egin beharreko jorraketa-lanaren luze-laburra zehaztuta utziz. (10')

**! Oharra:** Kontuan hartu lehendabiziko bertso berridatziaren eredia 1. pertsonan dagoela idatzita. Hortaz, 3. pertsonan idaztea erabakiz gero, aldaketa batzuk egin beharko dira.

#### Ataza: marrazki/bertso bakoitzari dagokion testua idatzi

- Ikasleak binaka banatuko ditugu eta bikote bakoitzak beste zortzi bertsoetako bat (A atazako marrazkitxoekin batera) hartuko du. Azter dezatela kontakizunaren une horretan zer gertatzen den eta idaz dezatela euren testua, bertsoetako ideiak zabaldu, jantzi, moldatu, azaldu eta interpretatuz. (20')

#### Feedbacka

Ondorengo bi prozedura hauek proposatzen dizkizugu feedback-saiorako.

##### ■ 1. Prozedura.

- ✓ Testua hiru irizpideri erreparatuz zuzenduko da: koherentziari, kohesioari eta zuzentasun gramatikalari. Komeni da banan-banan egitea eta denon artean zuzentzea.
- ✓ Prozedura hau bestea baino luzeagoa eta neketsuagoa da, ikasleen ardurapean uzten baitu zuzenketa-fase osoa. Hala ere, ez dira bakarrik arituko, zure gidaritzara eta laguntzara, handia ziur aski, beharko eta izango baitute. Horrez gain, Narrazioa zuzentzeko kontrol-zerrenda izeneko fitxa ere badute, lan horri aurre egin ahal izateko.
- ✓ Bestalde, ohartarazi ikasleak horrela zuzentzeak dakarren onuraz, ondoren euren kabuz modu bereberian joko dezaten.

##### ■ 2. Prozedura.

- ✓ Ikasleek idatzitako testuak jaso, zuzendu eta txukundu. Zuzenketa egiterakoan, testu bakoitzari bakartuta begiratu diogu, ez hari narratibo luzeago baten osagai gisa. Testu ezberdinen arteko desoreka eta kontraesanak ere geroagoko egokitapenean konponduko dira. "Txukundu" diogunean, berriz, zera esan nahi dugu: irakasleak garbira (ordenagailuz edo makinaz) pasatu behar dituela ikasle guztien testuak, eta bata bestearen ondoren ipini, hurrengo atazako lana bideratuta uzteko.
- ✓ Zuzendu eta txukundutako testuok ikasleei itzultzen dizkiezunean, esaezu alderatzeko bi bertsoak, euren idatzia eta irakasleak txukundua, eta errepara diezaietela egindako zuzenketei. Galdera edo zalantzarik badute, azal dezatela. (10')
- ✓ Ikasleek, binaka, testu osoaren (bederatzi zatiak) uztartzeari ekingo diote. Uztartetan sor daitezkeen desoreka, kontraesan eta desegokitasunei erreparatuko diete, eta horiek konpontzeko proposamen bat prestatu. (20-30')



## Feedbacka

- Eredu gisa, ikasle batzuk egindako lana eskaintzen dizugu (ikus 3.5. eranskina). Zuzenketa asko egin badituzte ere, hainbat akats daudela ohartuko zara.
- Bikote guztiek euren proposamenak plazaratu eta arrazoitu beharko dituzte klase osoaren aurrean. Proposamenok denon artean eztabaidatuko dira, eta, egoki jotzen badira, behin betiko testuan jasoko.

**! Oharra:** Onartutako proposamen guztien bilketa irakasleak berak egin dezake, edo idazkari bat izendatu horretaz ardura dadin. Bestalde, zuzenketa-fasean, azalpenak eta eztabaidak gardenkiz proiektatutako testuaren aurrean egitea gomendatzen dugu, ikasleen arreta hobeto biltzeko.



**IK. LIB. 4.2.** Ikaslearen liburuan 4.2. material osagarrian gaiaren inguruko komiki batzuk irakurtzeko aholkua ematen diegu ikasleei. Komiki horietan hikako \*\*\*\*\* formak azaltzen dira. Agian zure azalpen xumea eta argibideak ere beharko dituzte ikasleek hitanoaren nondik norakoak ezagutzeko.

Hona hemen ikastunitate honetan hizpide izan dugun gaiaren inguruko komiki batzuen erreferentzia:

- ✓ De la Fuente, C.; Soria, C. R. 1986 Herman Melville-n “Moby Dick”. Kriseilu.
- ✓ Fructuoso; Harriet 1989 Justin Hiriart: Itsas Gorritan. Erein.
- ✓ Fructuoso; Harriet 1989 Justin Hiriart: Izotzetako tranpa. Erein.
- ✓ Fructuoso; Harriet 1989 Justin Hiriart: Sekretoa. Erein.

**! Oharra:** Azken hiru hauek elkarren segidako istorioak dira.

Aipatu 4.2 material osagarrian, komikiak lantzeko beste ariketa bat dute ikasleek. Hizkuntzaren baliabide adierazkorrei (harridurazko esaldiak eta interjekzioak \*\*\*\*\*) erreparatzeko eta, testuingurua kontuan hartuz, esanahia asmatzeko eskatzen diegu ikasleei. Nahiz eta ikasleek bere kabuz egiteko pentsatua egon, klasean zuzentzeko proposamena luza diezaiekezu, eta unea aprobetxatu esaldi horiek klasean lantzeko.

**Aukeran:** Komikiak irakurri ondoren ikasleei euskaldunen eta azal gorrien eta inuiten (eskimalen) arteko harremanak interesatuz gero, Balea eta Euskaldunak \*\*\*\*\* liburuan, 199-211. orrialdeetan aurkituko duzu informazio gehiago.

\*\*\*\*\* Hitanoari buruz ikusi: Euskaltzaindia 1987 EGLU-II eta azken erabakiak. eta Zubimendi, J.R. eta Esnal, P. 1993 Idazkera-Liburua. Eusko Jaurlaritza.

\*\*\*\*\* Murgil & Sarda taldeak 1989 Balea eta euskaldunak. Gaiak. 199-211. orr.

\*\*\*\*\* Argibide gehiagorako ikus Zubiri, I.; Zubiri, E. 1995 Euskal Gramatika Osoa. Didaktiker. 566-583. orr.



# 1. EUSKAL BALEA EZAGUTZEN

## 1. FITXA

- Euskal balearen berri jakiteko, aldizkari zientifiko batera jo dugu: Elhuyar aldizkarira. Aldizkari horretan argitaratutako erreportaje baten bost zatitxo dira ondorengo ariketan erabiliko ditugunak. Ikasleok bakoitzak zatitxo horietako batekin egin beharko duzue lan:

✓ Hasteko, irakur ezazu testutxoa, eta ipiniezaiozu egokiena iruditzen zaizun izenburua.

IZENBURUA:

Euskal balea (*Eubalaena glacialis*) Mysticetea subordenako zetazeoa da, hau da, bizarrak dituzten zetazeoen taldekoa. 18 m-ko luzera eta 100 tonako pisua izatera irits badaiteke ere, 15 m eta 60 tona ingurukoak izaten dira normalean. Beltza da, baina orbain zuri batzuk ere izan ditzake azpialdean. Beste baleekiko duen bereizgarri nagusia burualdean du: buru handia izateaz gain (gorputzaren laurdena), buru gainean bizkarroiz betea egon ohi den gangarra du.

- ✓ Ondoren, azpimarra itzazu hitz-zerrendan zure testuan agertzen diren hitzak, eta erreparaiozu kontestu horretan duten esanahiari.

### HITZ-ZERRENDIA

UR-EMARIA	BAHEA	ARRA / EMEA	UR-AZALA	OSTIOLOA
ERDITU	ERNALKETA	BIZARRA	BIZKARROIA	UGALDU
ESKUALDEA	BARAILA	METATU	NEGULEKUA	ORBAINA
GANGARRA	MURGILALDIA	ELIKAGAIA		

- ✓ Azkenik, presta zaitez irakurritako zatitxo horren ahozko azalpena egiteko. Irakur ezazu Komunikazioari eutsi izeneko orria, eta horko baliabideak erabiltzen saia zaitez. Ez ahaztu ahozko azalpen horretan zehaztasuna eta argitasuna lortu behar dituzula, eta ikasitako hitz berriak erabili eta azaldu.

## 2. FITXA

- Euskal balearen berri jakiteko, aldizkari zientifiko batera jo dugu: Elhuyar aldizkarira. Aldizkari horretan argitaratutako erreportaje baten bost zatitxo dira ondorengo ariketan erabiliko ditugunak. Ikasleok bakoitzak zatitxo horietako batekin egin beharko duzue lan:

✓ Hasteko, irakur ezazu testutxoa, eta ipin iezaiozu egokiena iruditzen zaizun izenburua.

IZENBURUA:

*Migratzailea da. Uda iparraldeko itsasoetan igarotzen du. Urtaro horretan elikagai asko metatu behar du, negua eta migrazioko joan-etorria ia jan gabe igarotzen baititu. Iparraldeko itsasoko urak hotzegi bihurtzen direnean, urteroko migrazioari ekiten diote. Balea bakoitzak bere eskualdea du negua igarotzeko eta urtero bertara itzultzen da.*

✓ Ondoren, azpimarra itzazu hitz-zerrendan zure testuan agertzen diren hitzak, eta erreparaiozu kontestu horretan duten esanahiari.

### HITZ-ZERRENDA

UR-EMARIA	BAHEA	ARRA / EMEA	UR-AZALA	OSTIOLOA
ERDITU	ERNALKETA	BIZARRA	BIZKARROIA	UGALDU
ESKUALDEA	BARAILA	METATU	NEGULEKUA	ORBAINA
GANGARRA	MURGILALDIA	ELIKAGAIA		

✓ Azkenik, presta zaituz irakurritako zatitxo horren ahozko azalpena egiteko. Irakur ezazu Komunikazioari eutsi izeneko orria, eta horko baliabideak erabiltzen saia zaituz. Ez ahaztu ahozko azalpen horretan zehaztasuna eta argitasuna lortu behar dituzula, eta ikasitako hitz berriak erabili eta azaldu.

### 3. FITXA

- Euskal balearen berri jakiteko, aldizkari zientifiko batera jo dugu: Elhuyar aldizkarira. Aldizkari horretan argitaratutako erreportaje baten bost zatitxo dira ondorengo ariketan erabiliko ditugunak. Ikasleok bakoitzak zatitxo horietako batekin egin beharko duzue lan:

✓ Hasteko, irakur ezazu testutxoa, eta ipin iezaiozu egokiena iruditzen zaizun izenburua.

IZENBURUA:

Ur-azalean, murgilaldien arteko arnasketa-saioetan, 5-10 minutu egoten da, denbora horretan 4-10 arnasketa egin ditzakeelarik. Euskal baleak, bizkarrean bi ostiolo (zulo) ditu arnasa hartzeko, ondorioz zetazeoengan bereizgarri den ur-emia, euskal balearen kasuan V itxurakoa eta aurrealderantzkoa da.

✓ Ondoren, azpimarra itzazu hitz-zerrendan zure testuan agertzen diren hitzak, eta erreparaiozu kontestu horretan duten esanahiari.

#### HITZ-ZERRENDA

UR-EMARIA	BAHEA	ARRA / EMEA	UR-AZALA	OSTIOLOA
ERDITU	ERNALKETA	BIZARRA	BIZKARROIA	UGALDU
ESKUALDEA	BARAILA	METATU	NEGULEKUA	ORBAINA
GANGARRA	MURGILALDIA	ELIKAGAIA		

✓ Azkenik, presta zaituz irakurritako zatitxo horren ahozko azalpena egiteko. Irakur ezazu Komunikazioari eutsi izeneko orria, eta horko baliabideak erabiltzen saia zaituz. Ez ahaztu ahozko azalpen horretan zehaztasuna eta argitasuna lortu behar dituzula, eta ikasitako hitz berriak erabili eta azaldu.

#### 4. FITXA

- Euskal balearen berri jakiteko, aldizkari zientifiko batera jo dugu: Elhuyar aldizkarira. Aldizkari horretan argitaratutako erreportaje baten bost zatitxo dira ondorengo ariketan erabiliko ditugunak. Ikasleok bakoitzak zatitxo horietako batekin egin beharko duzue lan:

✓ Hasteko, irakur ezazu testutxoa, eta ipin iezaiozu egokiena iruditzen zaizun izenburua.

IZENBURUA:

Neguleku horietan ugaltzen dira. Kopula taldean burutzen dute, eme baten eta 2-7 arren artean. Ernalketaren ondoren, emeak urtebete inguru eramango du kumea sabelean erditu aurretik. Erditzea, negulekuko sakonera txikiko guneren batean gertatzen da, neguaren hasieran. Erditutako kumeak 5-6 m-ko luzera eta 2 tonako pisua izaten du. Bere lehen 6-10 hilabeteetan amaren esnari esker biziko da eta bien artean lotura sakona sortzen da.

✓ Ondoren, azpimarra itzazu hitz-zerrendan zure testuan agertzen diren hitzak, eta erreparaiozu kontestu horretan duten esanahiari.

#### HITZ-ZERRENDIA

UR-EMARIA	BAHEA	ARRA / EMEA	UR-AZALA	OSTIOLOA
ERDITU	ERNALKETA	BIZARRA	BIZKARROIA	UGALDU
ESKUALDEA	BARAILA	METATU	NEGULEKUA	ORBAINA
GANGARRA	MURGILALDIA	ELIKAGAIA		

✓ Azkenik, presta zaitetz irakurritako zatitxo horren ahozko azalpena egiteko. Irakur ezazu Komunikazioari eutsi izeneko orria, eta horko baliabideak erabiltzen saia zaitetz. Ez ahaztu ahozko azalpen horretan zehaztasuna eta argitasuna lortu behar dituzula, eta ikasitako hitz berriak erabili eta azaldu.

## 5. FITXA

- Euskal balearen berri jakiteko, aldizkari zientifiko batera jo dugu: Elhuyar aldizkarira. Aldizkari horretan argitaratutako erreportaje baten bost zatitxo dira ondorengo ariketan erabiliko ditugunak. Ikasleok bakoitzak zatitxo horietako batekin egin beharko duzue lan:

✓ Hasteko, irakur ezazu testutxoa, eta ipin iezaiozu egokiena iruditzen zaizun izenburua.

IZENBURUA:

Ahoak kurba handia du eta bertan, 2,5 m. luzeko bizarrak ditu. Bizarrak, hortz eraldatuak dira, goiko barailaren bi aldeetan kokatzen dira eta alde bakoitzean 270 inguru ditu. Balea bizar hauetaz baliatzen da bere janaria, kopepodo eta eufasiazeoak, harrapatzeko. Baleak ahoa erdi-irekia duela egiten du igeri eta bizarrak bahe-modura erabiltzen ditu, eta bertan kateatuta geratzen zaizkio zooplanktona osatzen duten krustazeo txikiak.

✓ Ondoren, azpimarra itzazu hitz-zerrendan zure testuan agertzen diren hitzak, eta erreparaiozu kontestu horretan duten esanahiari.

### HITZ-ZERRENDĀ

UR-EMARIA	BAHEA	ARRA / EMEA	UR-AZALA	OSTIOLOA
ERDITU	ERNALKETA	BIZARRA	BIZKARROIA	UGALDU
ESKUALDEA	BARAILA	METATU	NEGULEKUA	ORBAINA
GANGARRA	MURGILALDIA	ELIKAGAIA		

✓ Azkenik, presta zaitetz irakurritako zatitxo horren ahozko azalpena egiteko. Irakur ezazu Komunikazioari eutsi izeneko orria, eta horko baliabideak erabiltzen saia zaitetz. Ez ahaztu ahozko azalpen horretan zehaztasuna eta argitasuna lortu behar dituzula, eta ikasitako hitz berriak erabili eta azaldu.

## 2. ARRANTZAKO TEKNIKA

### 1. FITXA

**1** Irakur ezazu beheko testua, eta saia zaitez biribilaren barruan desordenatuta dauden ekintzen arrastoak bilatzen. Gero, ekintza horiek Taula kronologikoan bilduko dituzu, hurrenkera kronologikoan ondo ipinita.

**! Oharra:** aldi berean gertatzen diren ekintzak edo sinonimoak direnak lauki berean sartu.

**T**alaiaria (...). Lehendabiziko lana balea begiztatzea zen eta hori ezinezkoa zen herritik bertatik egitea. Bestalde, gau eta egun erne egongo zen norbait eskatzen zuen honek, baleak arnasa hartzeko urgaineratzen zenean kanporatzen zuen haize lurrindua ikusi ahal izateko.

Hori horrela, itsasaldeko herri guztiek bazuten muino apropos bat aukeratuta, talaia izenekoa. Urteoro, San Martinetik martxora bitartean edo, itsas gaietan jantzia zen gizaseme bat kontratatzen zuen herriak baleak zaindu zitzen eta, behin begiztatu ondoren, herritarrei adieraz ziezaien, hauek lehenbailehen prestatu eta atzematera atera ahal izateko. Aldean zuen labe batean sua piztu (ote eta beste sastraka batzuekin) eta kearen bidez ematen zuen berria. Lehenengo ikusten zutenak saiatzzen ziren ondoren, kanpai bueltakoekin nahiz danbolina astinduz albistea herri osora zabaltzen.

Balea harrapatzea zen bigarren urratsa eta, egia esan, munta horretako eginkizuna betetzeko ez zeukaten tresna-aukera handirik: arpoiak eta txabolinak nagusiki. Hiru punta zorrotz zituen arpoiak, haragi barruan sartutakoan ondo helduta gera zedin; unama edo estatxa bat ere bai (soka alegia) arpoitu ondoren balea urruntzen hasten zenean kateatu gabe libra zedin. Arpoia ondo helduta zeukanean etortzen zen txabolinaren saioa, balea ziztaka odolustu eta errenditzen zen bitartekoa.

Azkenik, balea jadanik hilda zegoenean, bi txaluparen artean haren azpitik sokak luzatu eta hauen gainean helduta lehorrera ekartzen zuten. Itsasgora zegoen arte itxoin behar zuten balea lurreratzeko (hondartzetako nahiz portuetako aldapatxo edo arranpalak aprobetxatuz), gero beheruntz hasten zenean lehorrean gera zedin. Behin bustigunetik kanpo, tornu, kable eta unamen bidez ahalik eta gehien aldentzen zuten uretatik, hurrengo itsasgorak harrapa ez zezan. Hemendik aurrera probetxamendu lanari ekiten zioten: balea larrutu, laurdendu eta zatikatuz gero, labeetara eramaten zuten haragia urtu eta lumera lortzeko.

- danbolina jo
- balea odolustu
- balea begiztatu
  - arpoia bota
  - sua piztu
- herritarrei adierazi/albistea zabaldu
- balearen azpitik soka luzatu
  - balea larrutu
- gizaseme aditu bat kontratatu
  - itsasgora izan arte itxaron
  - balea zatikatu
  - kanpaiak jo
- prestatu eta atzematera atera
  - txabolinak bota
  - balea labeetara eraman
- balea lehorrera ekarri / lurreratu
  - tornu, kable eta unamen bidez uretatik aldendu

## 2. FITXA

**1** Irakur ezazu beheko testua, eta saia zaitzez biribilaren barruan desordenatuta dauden ekintzen arrastoak bilatzen. Gero, ekintza horiek Taula kronologikoan bilduko dituzu, hurrenkera kronologikoan ondo ipinita.

**!Oharra:** aldi berean gertatzen diren ekintzak edo sinonimoak direnak lauki berean sartu.

**D**ola egiten zuten arrantzan garai hartako arrantzale euskaldunek? Portu guztietan zelatariak izaten ziren. Balea ikusi orduko, herriko kanpaiak jotzen hasten ziren eta arrantzale guztiak portu aldera jaisten ziren.

Berehala, txalupak itsasoan barrena abiatzen ziren. Txaluparik gehienak zazpi lagunekoak izaten ziren.

Txalupa barruan, bi gizon ziren buru: patroia eta arpoilaria. Patroiak gobernatzen zuen txalupa, arraun luze baten bidez.

Txalupak ilaran joaten ziren eta balearekin topo egin ondoren, animalia inguruan zirkulua osatzen zuten.

Arpoilaria patroia aginduaren zain gelditzen zen. Zutik, hanka bat txalupako muturrean, bestea eserlekuaren gainean eta eskuan arpoia. Une egokia iristen zenean, arpoilariak besoa luzatu eta burnia balearen haragian sartzen zuen.

Animaliak buztana astintzen zuen orduan. Hau zen unerik arriskutsuena. Balea berehala hondoratzen zen eta era honetara kilometroak egiten zituen, baina atzera igo beharra zuen aire-bila. Une hartan txalupa guztiak inguratu eta arpoiak botatzen zizkioten.

Txalupa guztiak aritzen ziren arpoiak botatzen. Izan ere, gero, balea banatzerakoan, kontutan hartzen zen bakoitzaren lana.

Ondoren, animalia hondartzaraino eramaten zuten. Eta hantxe uzten zuten itsasbehera gertatu arte. Orduan, txirrika bidez porturaino igotzen zuten.

- portu aldera jaitsi
- herriko kanpaiak jo
- txalupak itsasora abiatu
- baleari arpoiak bota
- txirrika bidez porturaino igo
  - balea inguratu
- erasorako (arpoiak botatzeko) prestatu
  - arpoia bota
- balea hondartzaraino eraman
- animalia inguruan zirkulua osatu
- arpoia botatzeko agindu

### 3. FITXA

**1** Irakur ezazu beheko testua, eta saia zaitze biribilaren barruan desordenatuta dauden ekintzen arrastoak bilatzen. Gero, ekintza horiek Taula kronologikoan bilduko dituzu, hurrenkera kronologikoan ondo ipinita.

**! Oharra:** aldi berean gertatzen diren ekintzak edo sinonimoak direnak lauki berean sartu.

**B**alea begiztatzzen zenetik harrapatu eta probetxugarri bilakatzen zen arte luze jotzen zuen. Urrats ugari zegoen tartean, ikusi, atzeman, lehorreratu, zatikatu, urtu... Jende multzo garrantzitsuaz gain, tresneria ere ugaria behar zuten lanketa hori burutzeko.

... talaia-gizona dugu. Balearen bila ez dira itsu-itsuan, nora ezean abiatzen, inguruan dabilelako ziurtasunarekin baizik. Horretarako herri bakoitzak, itsas gaietan jantzitako gizaseme bat kontratatzen zuen, San Martinetatik Martxora bitartean edo, balearen aztarrenik zuenean herritarrei abisua pasa ziezaien. Talaiari hau muino baten tontorrean egoten zen, gau eta egun, eta balea begiztatu orduko, aldean zuen labean sua piztu eta kearen bidez azaltzen zuen berria.

Bigarren urratsa balea harrapatzea zen. Talaiariaren abisua jaso orduko herriko ontzi guztiak abiatzen ziren balearen bila. Atzemate-sistema oso primitiboa zen, eta erabiltzen zituzten tresna nagusiak, arpoia eta txabolinak. Arpoia zen ugaztunari sartzen zitzaion lehenengo zulagaia; unamari lotuta, bere egitekoa balea kateatzea zen. Ondotik txabolinariiek ekiten zioten, ziztaka, odolustutzen zen arte. Behin balea akabatuta zegoenean lehorreratu egiten zen. Horretarako, bi untziren artean azpitik sokak bota eta hurbiltzen zuten. Kaien nahiz hondartzan, itsasgora arte itxoiten zuten lurtean jartzeko, hurrengo itsasbeheran lehorrean gera zedin. Hemendik aurrerakoa probetxamendu-lana da guztia.

- arpoia sartu
- balea urtu
- azpitik sokak bota
- itsasertzera hurbildu
  - balea ikusi
- balea lehorreratu
  - sua piztu
  - balea kateatu
- txabolinekin ziztatu
- balearen bila abiatu
  - balea begiztatu
  - balea odolustu
- itsasgora arte itxaron
- herritarrei abisua pasatu balea zatikatu

Murgil Taldea 1985: Euskal balenzaleak. Arrantzaleak ala kortsarioak?, Gordailu: Historia saila, 3, 33-34.orr. (moldatua)



## 3. BIDEO-PASARTEAK

### ORIOKO BALEAREN BERTSOAK



#### 1. BIDEO-PASARTEA

■ Iraupena: 5'51"

- ANTTON** Orain helbidea idatziko dugu, aber? “balearen laguna.es”, eta emango diot. Itxoin pixka bat, aber... Ah, begira, atera da, balearen laguna, logotipoa...
- BENITO** Kaixo, Kattalin!
- KATTALIN** Aupa, Benito! Aspaldiko! Zelan, ba?
- BENITO** Ze aldaketa daude, ba?
- KATTALIN** Ba, badakizu, orain cyber-taberna bihurtu dut. Zera, Unibertsitateko ikasleek-eta proposatu zidaten holako cyber-taberna bat egitea, eurek Internet-en egin eta ibiltzeko, eta, bueno, nik onartu. Badakizu, berritu ala hil.
- ANTTON** Zenbat bazkide dituzte? Bost mila...
- IKASLEA** Ui, begira!
- ANTTON** Ui, begira, Benito Lertxundi. Hori oriotarra da. Galdeiozu ea bazkide izan nahi duen (Bai.) Bai, motel, galdeio ez du ezetz esango. Eta, ezetz esaten badu, ba kitto.
- KATTALIN** Izena ere aldatu egin diot, orain Barrenet.
- BENITO** Eta hori irudi kontua da? Edo zerbait sakonagoa guzti hau edo...
- KATTALIN** Ez, bueno, konbentzitu ninduten, eh? Bueno, kultura sartzeko modu bat ere... Dena dela, txikito-taberna ere bada, eh?
- IKASLEA** Aupa! Begira, gu “Balearen lagunak” elkartekoak gara eta informazio-orri bat luzatzen dizut.
- BENITO** Zure babesa behar du. Gelditzen al da, ba, balearik?
- IKASLEA** Gutxi.
- ANTTON** Gainera, hau, bazkidegai ezin aproposagoa duzu, oriotarra izanik, honek izango du zer esan hola baleen inguruan, ezta? Orion harrapatu zenuten hemen harrapatu den azken balea.
- BENITO** Ba, bai. Gainera nik hori dela eta bertso ezagun batzuk, han herrian ziren bertso ezagun batzuk grabatu nituen bere garaian, eta han kontatzen da nola egin zuten hori, bai, mila bederatzehun eta lehen urtean.
- ANTTON** Entzuna daukat, bai. Eta horiek, balea harrapatzaileak ziren, edo, bazuen hola usadiorik Orion baleak harrapatzeko, edo...
- BENITO** Bueno, garai batean, bai. Euskal Herriko kosta guztian bazen. Balea-arrantzale onak ziren euskaldunak. Lehenak izan ziren munduan, bere garaian. Baina hor ez, garai hartan ez. 1901 urte horretan sardinak eta halako gauzak harrapatuko zituzten. Traineruekin joaten ziren arrantzara.
- ANTTON** Alde ederra, ez? Sardinatik balea harrapatzera... erdi akabatuta egongo zen balea hori?
- BENITO** Bueno, nik badaukat adiskide bat arrantzale jubilatu bat, ba, Terranovan eta bere bizia eman duena, eta bueno, horrek esaten du, ba, ze, ze, ze balea harrapatze eta ze arraio! Hildako balea ekarri zuten eta, arrastaka ekarri zuten, eta horri kanta egin behar zaio? Esaten du harek, katxondeon esaten du.
- ANTTON** Bai, hain zuzen, gainera hor aipatzen duzun bat neure lankide baten aitona zen eta... (bai). Zer egin zenuten balea horrekin? Zer egin zuten, edo nonbaiten dago edo?
- BENITO** Balea horrekin? Ba ekarri zuten, eta bueno, bertsoek hala diote, eta aditu ere hala... entzun ere hala dut. Nik, eh, ba, tinako 6 pezetatan saldu nahi zuten grasa egiteko, olio egiteko. Eta gero, ahoko... ez dakit, ileekin eta beste gauzekin ez dakit zer egin zuten, eta abar. Gero, Orion, hezur batzuk agertu ziren hor dragado bat egin zutenean ibaian, erriotan, ba, hezur batzuk agertu ziren. Nik ez dakit balea honenak ziren edo lehenagoko beste balearen batenak ziren. Eta hor bada jarria, halako... bueno, pixka bat herria



dotoretzeko edo, puxka bat jarria dago.

**ANTTON**

Bai, hori ospatuko zuten Orion, ezta? Hori garai hartan hazaña handia zen, ez? Horrelako balea harrapatzea?

**BENITO**

Ba, bai. Nik aditu izandu nion, nire amari aditzen nion ospakizun gisa, arranpara ekarri zuten, arranpara igo zutenean, ba, egin omen zioten ahoa ireki, zutabe bat jarri omen zioten ahoan, bertan sartu omen zuten mahaitxo bat eta, ez ziren denak sartuko, baina bakar batzuk barruan sartu eta kafea hartu omen zuten.

**ANTTON**

Hori da! Zer diren gauzak, eh? Jo, orain...

**KATTALIN**

Txakolinik bai, ezta?

**ANTTON**

Bai, nik hartuko dut bat.

**KATTALIN**

Hala, hartu ezazue.

**ANTTON**

Ba, orain ehun urte sekulako hazaña hau, eta gaur egunean sekulako barrabaskeria izango litzateke hau egitea, ezta?

**BENITO**

Gutziz basakeria, bai.

**ANTTON**

Orain pentsa, baleak babesteko elkarteak, eta orduan harrapatzera. Zu prest egongo zinateke hola elkarte honetako bazkide izateko. Zu orain... eta gainera... oriotarrak ere prest egongo lirateke horrelako bazkide batean...

**BENITO**

Bai, Orion topatuko dituzu... gaur egun horrelako gauzetara... afiliazio hauek egiten, gustura egin dituen jendea bada. Badira ekologismoa eta oso... dotoretzeko, zerak, deiturak politak dira, eta abar... Ba... nik, egia esan, gehiegi ez dut... -ismo horiekin ez dut gehiegi sinisten eta... Nahiko bihurria naiz gauza hauetan parte hartzeko. Ez dut gehiegi sinisten antolamentu horietan, ez?

**ANTTON**

Eta orduan... bueno, baina ez legoke gaizki badaezpada ere...

**BENITO**

Nik beti pentsatzen dut egin ez dela ezer egin behar. Gizonak egin behar du utzi gauza batzuk egiteari, utzi. Egin ez, utzi. Utzi gehiago, ez haserretu, utzi gehiago. Horiei uzten baldin bazaie... pakean uzten baldin bazaie, beraiek edertzen dira. Natura bera edertzen da. (Bai? Uste duzu?) Ez da ezer antolatu behar.

**ANTTON**

Nik uste dut, dena dela, ba, begira, eraman ezazu hau etxera eta irakurri ezazu lasai, lasai, eta bueno, animatzen baldin bazara, ba, jarri zure datuak eta bidali.

**BENITO**

Horixe, horixe egingo dut katexima moduan egingo dut (Aber, ea aurrerago bidaltzen...) erreflexio sakon bat egingo dut honen...

**ANTTON**

Bidaliko dizkizut baleakumearen argazki batzuk... babestu duzun baleakume horren argazkia.

**BENITO**

Eramango dut hemen, zintzilik hemen eramango dut, eh?

**IKASLEA**

Ba, zintzilik argazkia igoal ez, baina (ah, begira!) niki hau, ba, oparitu egiten dizugu.

**BENITO**

Aurtengo udan Orioko hondartzan agertzen banaiz honekin esango dute: "hara, gure Benito, ekologista egin da", eh?

**KATTALIN**

Anima zaitetz, neu be... (neu ere)

**BENITO**

Baleen amodioa agertzen... baleentzako amodioa.

**KATTALIN**

Bai. Anima zaitetz, neu ere amabitxia egin naiz eta.

**BENITO**

Zu ere bai? Denok egin zarete, eske gaizki ematen dut nik, eh...

**ANTTON**

Eskatu egingo dizkizute gehiago eta hori...

**BENITO**

Esango didate: eta hik nondik sortu duk hori, eta oso polita duk hori, ez?

# ATAZA: INFORMAZIOA BILTZEN

## B.2. Ataza: EUSKALDUNAK BALEAREN

### ARRANTZAN \*\*\*\*\*



#### 2. BIDEO-PASARTEA

■ Iraupena: 3'15"

- ELKAR** Olioa aipatu duzu, ezta?
- J.A.A.** Olioa gehienbat.
- ELKAR** Entzuna daukat balea-haragia edo, ez dakit okela esan beharko genukeen, baina ez dela aprobetxatzen. Olioa gehienbat eta gero mingaina, ezta?
- J.A.A.** Bai.
- ELKAR** Mingaina edo mihia.
- J.A.A.** Mingaina ere egiten zen nolabait, olioaren oso berezia, oso... oso formal. Bestea zen latzagoa edo, ez zen hain... basto samarra, baina oso inportantea, ze begira, garai hartan argia egiteko gauzez eta, ba, zerak... kandela, kandela edukitzeko argizariarekin oso garestia zen eta balea-olioa askoz ere merkeago zen. Ikusten dugu, esaterako, ba, oletan, ferrerietan, gure ferrerietan, ba gauzez lana egiteko, ba, olioaren, balea-olioa erabiltzen zutela. Eta ez hemen bakarrik. Gaztela ingurura eramaten zuten, bai Ingalaterrara, bai Frantziara eta esportatzen zuten, bai.
- ELKAR** Hor, mordoaren harrapatu behar, derrigor.
- J.A.A.** Mordoa harrapatzen zuten, gainera. Bueno, garai hartako industria euskaldunena... bi industria, zeren itsasoaldetik ba, balea, batez ere balea eta barnealdean, ba, burdina. Bi gauza horietan sustatzen zen nolabait ekonomia.
- ELKAR** Hortxe ari gara ikusten, hortxe gure atzeko aldean, eh? Hortxe... zera bat da, armari bat, eta hemen balea, eta hemen itsasontzia hortxen ikusten dugu, Zarauzko zera bat da, armari bat, eta hor ikusten da garbi, ezta, balea-arrantza hemen oso gauza normala zela eta asko-asko eramaten zela.
- J.A.A.** Bai. Harrigarria da bai, eh, hola armarritan, Baionatik hasi, Biarritzetik eta Lekeitio, eta bueno, kostaren herri gehienetan holakoak. Eta ez bakarrik armarritan, baizik, zigilutan, seilutan ere bai. Aintzamentuko, Udaletxeko seilutan balea agertzen da. Horrek esan nahi du ez bakarrik bitxikeria bezala, baizik eta balea ikusten zutela, ba, garai hartako ekonomiaren sustapen oso garrantzitsua.
- ELKAR** Eta nolako itsasontziak erabiltzen zituzten balea harrapatzerako joateko? Nik aipatu dut, bueno, traineruak, nik entzuna daukat hortik datozela, ezta? Hor joaten ziren behintzat arraunean eta...
- J.A.A.** Noski, noski. Hortik datoz. Traineruen karrera nolabait...
- ELKAR** Estropada, ezta?
- J.A.A.** Estropada aguro ibiltzea da traineruak abisatu egiten zituztenean ba, balea ikusi zutela talaiatik, orduan presaka joaten ziren, zeren eta arpoi... lehenbiziko arpoia botatzen zuenak, ba nolabait bere saria zuen berezia, eh? Partitzaerakoan, lehenbiziko arpoia oso inportantea zen. Lehenbiziko edo bigarren arpoiak asmatuz gero orduan baleak ihes egin zezakeen. Eta horregatik lehenbiziko arpoia sari berezia jasotzen zuen.
- ELKAR** Oraingo estropada, arraunlari hauek harrapatu izan balute balea, beharbada, eh? Bai, zitzu batean. Aipatu dugu, bueno, Euskal Herrian, ez dakit, ze, bukatu egin zen hemengo balea? Etortzeari utzi egin zion? Esan nahi dut, euskaldunak hasi baitziren, ezta? urrutira joaten, Ternua aldea hor daukagu, eta...
- J.A.A.** Bueno, gehienbat XVI. gizaldian gehienbat hemengo baleak desagertu egin ziren. Oso gutxi ziren. Bueno, garai hartan oraindik aurkitzen dira, eh? herrietan aurkitzen zituztela eta harrapatu ere bai. Eta hemen Galiziarra eta XVI. ean asko joaten zen. Baina hiru edo lau gizaldiz hortan ibili eta gero Ternuako nolabaiteko aurkikuntza lortu zutenean edo ikasi zutenean hara joan ziren eta hango nagusi egin ziren. Ia gizaldi bat behinik behin edo mende batean ba, han, bertako nagusiak izan ziren. Gero politika-arazotik, ba, holandesek eta frantsesek eta ingelesak handik kanpora bidali zituzten, baina garai batean beraiek izan ziren ez bakarrik arrantzale onenak baizik eta beste atzerritarrei erakutsi zietenak balea harrapatzen eta bertako ofizialak euskaldunak ziren gehienbat.

## ATAZA: INFORMAZIOA BILTZEN

### B.3. Ataza: ARRANTZAKO TEKNIKA

#### 2. TALAIAK \*\*\*\*\*



#### 3. BIDEO-PASARTEA

■ Iraupena: 2'41"

**ELKAR**

Halaxe. Zuk talaia aipatu duzu lehen, eh? talaia. Hor egoten ziren, zera, postu horietako bat, eta badakizu Ulia mendian Donostian badela horietako bat, eh? Talaia bat, eh? itsasgizonei abisua emateko, han goizean izan da Kristina Urrutia gure lankidea. Ea zer dioen berak.

**K.U.**

Ufff! Kostata, baina iritsi gara, eh? Ulia mendiaren puntan gaude eta hemen nire atzean ikusten duzuen hau talaia bat da. Balea-arrantzarekin zerikusia duen talaia. Tira, goazen, bada irakurtzera bertan dioena, bai baita hor idatzi bat plaka batetan. Goazen. Tira ba! Irakur dezagun bertan dioena: "Bale-arrantzako beatokia. X. gizaldia ezkerro leku ontatik deitzen zitzaizoten Donostiko arrantzaliai inguruan balia agertzen zanean". Hara ze ederki, ze euskara dotorean, antiguleko euskaran idatzia dugu kartela, eta hemen bada ezpada, frantsesez eta ingelesez. Ez dakit, atzerritarren bat etortzen bazen edo berak ere jakin zezan zer egin behar zen, hona etorri eta itsaso aldera begiratu, nik uste dut X. mendean orain baino zuhaitz gutxiago izango zela eta hobeto ikusiko zela balea noiz agertzen zen. Balea ikusi orduko segituan abisua pasa behar zuten Donostia herrira. Orain ez da oso ongi ikusten baina, tak, pentsa ezazu hortxe dela Donostia, hor atzean gelditzen baita. Nola pasatzen zuten abisua arrantzaleak azkar-azkar entera zitezen balea zetorrela? Hiru modu zeuden. Bata: hemen, mendi-puntan sua piztuko zuten eta kea, ke izugarria sortzen zen. Ke harekin ba omen zekiten arrantzaleek balea zetorrela. Beste modu bat, bigarrena, kanpaia jotzea zen. Arrantzaleek ekarriko zuten hona kanpaia. Arrantzaleek edo hona zetorrenak kanpaia ekarri eta fuerte jo. A, akaso hemen egongo zen, eh? Orain galdua omen da, baina. Kanpaia jotzea beraz, bigarren modua eta hirugarrena: maindire handi bat, maindire bat zabaltzea. Eta behetik, herritik ikusten zutenean maindire hura, bazekiten baleen kontua zebilela hemen, eh? Herrian, berriz, zer egiten zuten? Mezua jaso zutela eta abisu hura zabaltzearren herrian bi modu zituzten: bata, elizako kanpaia jotzea, fuerte-fuerte kanpaia jo, eta herri guztia aztoratzen zen. Eta bigarrena, berriz, udaletxeak mutil bati ordaindu egiten zion tanborra jo zezan, tanborlero bat. Tanborra jo eta herri guztian zehar ibiltzen omen zen, jendeak entzun eta arrantzaleak azkar mugitu, traineruak hartu eta itsaso aldera, portutik atera eta balea harrapatzera, balea-arrantza.

#### 4. NORTEKO FERROKARRILA: BALEA \*\*\*\*\*



■ Iraupena: 15'

**ELKAR**

Petrolio isurketak edota zaratak berak ere arrisku larriak dira zetazeoentzat. Jarduera horiek guztiak oso kontentratuta daude Mediterranioko kostaldean eta, beraz, arrisku-faktore handiko eskualdea da. Tamalez, eskualde hori da zetazeo askoren udalekua eta hortik dator, hain juxtu, arriskua. Kontuan izan behar dugu, gainera, populazioak uda aldean ugaltzen direla ingurune arriskutsu horietan eta horrek, estatistikek erakusten diguten bezala, populazioak ia desagertzeraino eraman dituzte.

Ez dira oraindik bederatziak, 20 minutu falta zaizkigu eta, egia esan, Orion agertu zenez geroztik gauzak asko aldatu dira balearentzat. Baita euskal balea izenez ezagutzen denarentzat ere. Euskal balearik ba ote dagoen ere galde genezake. Populazioa erabat urritu eta ia desagertzerainoko presioa eragin baitugu animalia eder horiengan. Joxerra Aihartza jauna, gabon!

**J.R.A.**

Gabon!

\*\*\*\*\* Andoni Aizpuru eta Joxe Antonio Azpiazu elkarrizketan. Bertatik Bertara saioa, ETB, 97/11/19.

\*\*\*\*\* Norteko ferrokarrila, Euskadi Irratia, 97/11/06.

- ELKAR** Joxerra Aihartza biologoa da, eta gaur gurekin da euskal baleari buruz bi hitz egiteko. Hasteko, Joxerra, ba al dago euskal balearik?
- J.R.A.** Bueno, izan bazen, ezta? Hor bada... bada kontu bat printzipioz da eztabaidatsu bat, pixka bat, espezie konkretuetaz eta hitz egiterakoan, ba, askotan zoologoak ere ez dira ados jartzen. Eta, bueno, euskal balea izenaz ezagutzen zena hemen bertan izan zena makina bat mendez, hasieratik nahiko balea mantsoa eta zelako eta ehizatzeko erraza. Hori, eh, zoologiaren ikuspuntutik hori “eubalaena glacialis” bat da. Hau da, printzipioz, ipar hemisferioan edo bizi den balea-espezie bat. Zenbaiten iritziz, euskal balea edo izango litzatekeena, gainera, izango litzateke espezie horren barruan, Atlantikoan, Atlantikoko iparraldean eta, gainera, ekialdeko kostatan edo bizi zena soilik. Hor badira, momentu honetan badira... edo pentsatzen da badirela, edo bazirela hiru populazio: bat da Ozeano Barearen iparraldean edo kokatuko litzatekeena, beste bat Ameriketako Atlantikoko kostaldean edo itsasoetan bizi zena eta beste bat Europako itsasoan bizi zena. Eta hori zen, printzipioz euskal balea izenez edo ezagutzen zena. Hori baldin bada euskal balea, eta hori hartzen badugu euskal baleatzat, izan, euskal balearik, jada ez da.
- ELKAR** Jada ez da.
- J.R.A.** Jada, suntsitua da. Bueno, geratuko lirateke hainbat ziento ale, Ameriketako itsasoan edo bizi diren hauetatik eta hori izango litzateke, ba, bueno... orduan pentsatzen da 300-600 bat animalia edo izango liratekeela, ezta?
- ELKAR** 300-600 bitarte horretan?
- J.R.A.** Bai.
- ELKAR** Presioa ikaragarria dela pentsa dezakegu 300-600 bitarteko populazio bat soilik dagoela ikusten baldin badugu, Joxerra. Hitz egingo dugu presioari buruz. Nolakoa den galdetu behar nizun. Nolakoa zen euskal balea, nola bereiz zitekeen Orio aldean sartzen ikusi orduko bazekiten eta euskal balea zela?
- J.R.A.** Bueno, euskal balea da, gainera, garai batean benetako balea edo ezagutzen zena, ezta? Edo benetako balea izenaz edo ezagutzen zena. Pixka bat hor jeneroaren latinezko izenak Ubalaena ere horixe, horixe adierazten du. Izatez, zen tamaina ertain-txikiko balea bat, 15 bat metro inguruko luzerakoa eta 60 bat tona inguruko pisua zuena eta izatez nahiko, bueno, beste hainbat espeziekin eta alderatzen baldin badugu behintzat, nahiko animalia labur eta lodikotea. Ez oso igerilari azkarra, izatez, mantsoa, hori da, pixka bat, ehizerako eta, pieza aproposa bezala edo azaltzen zena. Hortik dator kio baita ere espainolezko “ballena franca” eta izena, bueno, ba, pixka bat, alde hortatik, hori, nahiko motela eta zelako, eta ez zuelako problema handirik jartzen hiltzeko, harrapatzeko, eta gainera gero, hil eta gero, flotatu egiten zuelako, ez? eta orduan, hori ere izugarritzko abantaila zen.
- ELKAR** Azalean geldizen zen hil eta gero?
- J.R.A.** Bai. Ur-azalean gelditzen zen. Eta orduan, alderdi hori izan zen abantaila handi bat, batez ere hemen hasieran, arrantza egiten zen bezala, traineruz eta egiteko, bueno, beste espezie batzuekin hastea, ba, nahiko konplikatua zelako, ez?
- Beste ezaugarriarik, ba, esandakoa, nahiko balea buru handia da, izatez, bueno, gainontzeko balea gehienak eta bezala, halako iragazle handi bat duena ahoko aldean, eta, bueno, horren bitartez makina bat krustazeo eta abar harrapatuko zituen bazkaltzeko.
- ELKAR** Ezaugarriak, bada, ikusita, bereizteko modukoa zen. Jakin dugu ere, Joxerra, ba, arrantzaleek ongi asko ezagutzen zituztela balea horren “ohiturak”-kakotxa artean- beharbada bazekitela ugaltzeko garaian eta kumeak egin eta gero amaren eta kumearen artean oso lotura sendoa sortzen zela, eta hain justu faktore hori ere aprobeztatzen zutela arrantzarako.
- J.R.A.** Bai, bai, noski. Hori, bueno, balearen kasuan, batetik ernaldia oso luzea izaten da, baina gero titi ematea ere bai, beste urtebete ingurukoa izaten zen. Urtebeteko ernaldia eta beste horrenbesteko titia ematea, euskal balea izenaz ezagutu dugunaren kasuan, eta horrek oso lotura estua sortzen zuen, ama eta umearen artean, eta, noski, arrantzaleentzat nahiko erraza izaten zen. Baita ere alde praktikotik eta, ba, baleakumea hiltzea, hori kaietaraino eramatea eta bazekiten haren atzetik ama etorriko zela, ezta? Orduan, gero horrek, noski, asko errazten zuen ama bera harrapatu eta maneiatzea.



ELKAR

J.R.A.

Ikusi dugu egoera benetan kezagarria dela, euskal balearena behintzat, ba, esan diguzu, populazio oso txikia dela; gainera, populazio konkretu bati bakarrik begiratzen badiogu, ia euskal balearik ez dagoela esan genezakeela, presioa, Joxerra, ikaragarria izan da. Berdin izan al da balea espezie guztiengan? Ez. Eta pixka bat lehen aipatutako arrazoiak izan dira garrantzitsuenak. Bueno, gero presioa beste espeziei beranduago etorri zaie. Seguraski ez da berdina izan forman, baina azkenean, bai ondorioetan, ezta? Hombre, euskal balearen arrantzari buruzko lehendabiziko datuak, jada, badaude X, XI, XII. mendeetatik. Eta orduan, ba bueno, ordutik baditugu erreferentziak Euskal Herrian jendeak, ba bueno, harrapatzen zituela baleak. Lehenbiziko erreferentziak dira ba, baramendutatik eta pixka bat hondartzetara eta itsasora botatzen zituzten hildako edo zauritutako balea horien ustiaketarenak eta ondoren, jada, badatoz, zuzenean itsasora atera eta balea arrantza edo ehiza esan beharko genuke ugaztun batez ari garenez, baino, horretaz, ezta? Badakigu baita ere XVI. mende alderako euskal arrantzaleek iparraldera jo behar izan zutela, batetik, jada euskal balea hori izugarri urritu zelako eta orduan, ba, hor jo behar izan zuten pixka bat Britainia Handia aldera, handikan gora, Groenlandia aldera, Terranova aldera, eta abar, eta pixkanaka hasi ziren beste espezie batzuk ehizatzen. Ipar balea, lehendabizi, eta pixkanaka XVIII. mendetik aurrera jada, bueno, ehiza hori zabaldu zen makina bat espeziatar. Batetik, aurretik harrapatzen zirenak, errazen harrapatzen zirenak, alegia, izugarri murriztu zirelako. Euskal balea XVIII. menderako jada kasik iraungitza jotzen zen, oso-oso gauza arrarotzat jotzen zen, eta, beste alde batetik, baita ere, jada, espezie handiagoak harrapatzeko eta itsaso zabaletan denbora gehiago ematen zutena, ba, balea urdina bezalakoak eta zeroi urdina bezalakoak eta... horretarako jada, beste itsasontzi batzuk behar zirelako, beste teknologia behar zelako, ezta? Sasoi horretarako, gainera, jada ez euskaldunak, baizik eta nederlandarrak, ingelesak eta abar sartu ziren tope negozio horretan euskaldunek atzera egin behar izan zuten, ez zeukatelako lehiatzerik itsasontzitan eta ez ahalmenean beste jende honekin, eta, bueno, ba, pixkanaka hemen balearen negozioak atzera egin zuten neurrian, ba, beste makina bat herrirentzat orduantxe hasi zen olatu garrantzitsua eta horrek ekarri zuten, ba, azkeneko bi mendeetan, jada, beste makina bat espeziaren atzerakada.

ELKAR

Eta hortik segitzen baldin badugu aurrera, Joxerra, gaur egungo egoerara iristen gara. Aipatu dugun gaia mahaigainean jartzeko orduan, pasa den astean elkartu zela Baleei Buruzko Nazioarteko Batzordea. Erabaki batzuk bazituela mahaigainean; erabaki horiek, bueno, horietako bat behintzat garrantzitsuenak, ugal lekuen edo babeslekuen kontua. Horretan ez dute ezer erabaki, datorren hilean berriro eztabaidatzekotan gelditu direla. Badira tartean beste proposamen batzuk. Etsipenera kondenatuta gaude, edo kondenatuta daude baleak, orohar, edo badago nondik edo handik heltzerik gaiari?

J.R.A.

Bueno, nik uste dut ez daukala irtenbide handiagorik balea-arrantza uztea bera baino. Esan nahi dut horrekin, eta pixka bat gauzak bere lekuan jartzeko, ezta? Eh, balea-arrantzan? Bueno jar daitezke, har daitezke zenbait neurri. Ba, bueno, ugal lekuak eta babestekoak. Ba, esate baterako, Korsika aldean egin nahi zuten eremu babestu hori. Mediterraneo aldean mugitzen diren baleak nolabait babesteko balioko lukeena. Bueno, horrek ez du inolako posibilitaterik aurrera ateratzeko. Orain, Irlanda aldean ezarri nahi duten beste honek ere problema berdina izango ditu. Eta, gainera, azken batean, ez da oso erraza horrelako neurri bakar batek, batetik eraginik izatea. Hala ere, begira zein zaila den horrelako neurri bat hartzea ere, ezta? Baina eraginik izatea ez da erraza, ze badira hainbat espezie kostaldean babesten direnak, urte-sasoi konkretu batzuetan eta gauza konkretu batzuetarako, eta orduan, kostaldea babesteak izan dezake zentzurik horretarako. Badira beste zenbait espezie ez dauden egoera horretan, denbora guztian itsaso zabalean edo ibiltzen direnak, eta orduan hauek ez lirateke babestuta suertatuko horrelako neurriekin. Edozein modutan bada kontu bat, nire ustez, pixka bat azaltzen duena hemen zer gertatzen den. Euskal balearen kasuan eta gainontzeko balearen kasutan datuak antzerakoak dira. Pentsa euskal balea batek lehen kumea egiteko 5-10 urte bitartean behar dituela. Eta, kumeak egitekotan, egingo dituela 3-4 urtero. Horrek esan nahi du baleak direla animalia batzuk izugarrizko ugalkuntza-ahalmen baxua dutenak. Hori konpontzen da, ba, biziraupen luze batekin, ezta? Baina horrelako animalia baten kasuan, oso-oso zaila da. Zaila ez, praktikan ezinezkoa da, inolako kudeaketarik

egitea. Eta animalia hori ehizatzen jarraitu ahal izatea denbora luzean populazio bera pikutara bidali gabe. Gaur egun, pixka bat, basabizitzaren kudeaketaz eta faunaren jestioaz ari diren liburutan adibide bezala erabiltzen da kudeaketa ez denaren adibide bezala eta pixka bat, gaizki hartutako bidearen adibide bezala. Erabiltzen da, hain zuzen, baleagintzan edo gabiltzan nazioarteko erakundeek jadanik 1949. urtean hartutako erabaki bat. Bertan, pixka bat, balea arrantzak edo balea ehizak izan beharko lituzkeen bideak eta finkatzerakoan, helburu bezala jarri zuten neurriak hartzea balea arrantza modu sostengarri batean, modu jasangarri batean aurrera eramateko. Hori oso gauza polita da, oso ponpoxo da, oso ondo geratzen da. Baina hori da gaur egun, ba, kudeaketaren teorian eta esaten dena, ezinezko helburu bat jartzea. Jatorriz, ezinezkoa dena.

**ELKAR**

Azaldu dizkiguzun ezaugarriengatik, ezta? Juxtu, hain juxtu, ba, 5 edo 10 zera behar dituelako eta 3 urtetik behin egiten duelako umea, ezta?

**J.R.A.**

Hori da. Halako ugaltzeko ahalmen txikia daukan espezie bat ezin da kudeatu, ezin da ustiatu modu jarraian, eta aldi berean espero izan populazioa ez dela galduko. Ez da posible. Orduan, noski, helburu bezala horixe jartzen baduzu, hortik aurrera hartuko dituzun neurri guztiak helburu hori betetzeko, ba, bueno, benetan ezkututzen dutena da, azken batean, balearen asuntuan, benetan gertatzen dena, ezta? Herri asko daudela, edo behintzat herri batzuk badirela interes ekonomiko oso handiak daukatenak balea arrantzan eta pixka bat bertatik lortzen dituzten produktu guztien komertzializazioan. Orduan, hor azkenean sekulako baliabide edo sekulako negozio bat dago, baliabide batzuegatikako borroka bat dago eta, azken batean, gero babes-neurriak eta gauza hauek guztiak planteatzen direnean, ba bueno, nolabaiteko helburu batzuk eta jartzen dira, baina esan dezagun, pixka bat, jendeari begira, baina inolako betetzeko posibilitaterik ez dutenak, jatorriz.

**ELKAR**

Eta horretan dago kontua. Esan behar nizun, Joxerra, datorren hilean berriro elkartzekotan direla, baina esan diguzunaren arabera, ez dakit nik, datorren hilean inongo erabakirik hartzen bada ere, ba, izango da, ba hori, behin-behineko irtenbide bat, irtenbidetxoa, nahi baldin bada. Aipatzen ari da, bueno, ba, Irlandatik egin duten proposamen hori izango dela mahai gainean izango dutena eta hori oso oker ez banago, itsaso... kostaldetik aparte, babeslekuak edo jartzea. Hori da proposatzen zuena, ala?

**J.R.A.**

Bai. Bai, bai. Bai baina azken batean arazoa, horrek pixka bat geldotu baino ez luke egingo. Pentsa, baleen kasuan hitz egiten ari garela animalia batzuez baina, bueno, gehienetan migratzaileak eta direnak, eta azken batean beraien bizileku itsaso osoa da, ezta? Errazagoa da, noski, leku batzuetan harrapatzea bestetan baino, hantxe biltzen direlako, etab., baina, azken batean, egoera berdina da. Animaliak ehizatzea zertxobait garestiagoa izango da itsaso zabalean edo babes-eremu horietatik kanpo, baina ondorioa berdina izango da, espezieak galdu egingo dira. Hor... pixka bat... euskal baleak egindako bideak horren adibidea ditugu.

**ELKAR**

Horren adibidea ditugu. Nekez ikusi ahal izango dugu, bada, Joxerra, Orioko barran beste balearik?

**J.R.A.**

Bai. Bueno, akaso poliesterrezkoren bat edo.

**ELKAR**

Baina tartean, tira, ondoko bertsoekin gelditu beharko dugu tamalez zaila izango delako holako ale eder bat gure kostara inguratzen ikustea. Eskerrik asko, Joxerra Aihartza, xehetasun hauek emateagatik.

**J.R.A.**

Zuei.

**ELKAR**

Hurren arte. Adio.



## D. ATAZA: NARRAZIO-TESTUAK SORTZEN

### 5. BALEA! BALEA!

- Hona hemen Leioako Udal Euskaltegiko ikasleek egindako lana. Orion gertatutakoaren bertsio polita, ezta?

Orioko apaizak, egiari zor zaion begiruneak bultzaturik, behin betiko argituta utzi nahi izan zuen euren herriari hainbeste liskar eta haserre bide ekarri dion pasadizoa.

Orain dela urte asko, mende honen lehendabiziko urteko udaberrian, oriotarren eguneroko bizimodu lasaia astidu zuen gertakari batek: izugarriko balea agertu zen goiz partean herriko barraren aurrean. Arrantzale-herria izanik ere, urte askotxo zeramaten Orion horrelakorik ikusi gabe, eta ordurako ia ahaztuta zituzten behinolako balea-arrantzaleen balentria eta kontu zaharrak.

Agertutako balea ordurarte ikusi zuten handiena zen. Tamaina handia izan arren, oso arina zen. Mugimendu haiek hain askarrak ziren, ezen itsasabereak handik zebilen txalupatxo hondoratu zuen hegatsarekin. Bazirudien amorratua zegoela, agian zorriak kendu nahi zituelako edo.

Egun hartan talaiaria inoiz baino beranduago joan eta balea ikusi zuenean, berehala joan zen herriko eliz kanpaiak jotzera jendeari abisatzeko. Soinua entzutean, gizon batzuk balea bat agertu zela konturatu eta marinelen bila joan ziren. Hasieran portura abiatu ziren korrika, baina berandu zenez, ez zegoen jende askorik. Horregatik, hamaiketako ordua izanik, tabernan saiatzea erabaki zuten, eta bai aurkitu ere. Balea zegoela jakinda, bolondres nahiko sortu ziren ehizan laguntzeko. Denontzat lekurik ez zegoen, ordea. Orduan gizonik indartsuenak eta arrantzalerik onenak aukeratu zituzten. Arrantzaleak portuko biltegira joan eta arpoi bana, kupel batzuk dinamita eta soka luzeak hartu zituzten. Jende motela ez zenez, berehala antolatu zuten materiala itsasontzietan.

Dena prestatuta eduki eta gero, bost traineru joan ziren balearengana. Egurrezkoak eta txikiak ziren eta urteen joan-etorria nabaritzen zen beraien itxuran.


Txalupa bakoitzean patroil bat zihoan. Mutil bizkor haiek oso kementsuak, trebeak eta esperientzia handikoak ziren. Ondoko hauek: Manuel Olaizola, arrantzale garrantzitsu baten semea; Loidi, herriko esperientzia gehien zeukana; Uranga, arrantzale onena; Atxaga, kementsuena eta Manterola, bostetatik gazteena baina besteak bezain trebea.

Bost txalupok balea inguratu zuten, bakoitza bost marinelek osatuta. Aberearekin gataska galanta eduki ondoren, hura hilda edo itota zegoela ikusi zuten. Denon artean soka batez ondo lotu eta kairantz abiatu ziren eta han txirrikaz atera zuten balea uretatik



Arrantzaleak pozik zeuden itsas-ugaztuna harrapatzeagatik . Jende-piloa hurbildu zen balea ikustera eta biba eta txaloak entzuten ziren. Horrelakorik agertu gabe urte asko pasa izan zirelako. Aitonek bere ilobak eramaten zituzten animalia erakustera eta umeak korrika joaten ez zirenak harrituta geratu ziren.

Zatitu baino lehen argazkiak atera zituzten Orioko pertsonaia nagusiekin. Gero herriko iturginak, itio Rikardoki, neurriak hartu zituen. Lan gogorra izan zen hamabi metro luze eta gerrian beste hamar zabal zituelako. Tamaina erreala aztertu eta gero euren aurrean 71.300 kg-ko animalia bat zuten.



Balea guztieek bezala, lau pala zituen, bi buztanean, lau metrokoak, eta beste biak alboetan.

Horrez gain, arnasa hartzeko bi zulo zituen bizkarrean eta janaria harrapatzeko bi metroko bizarrak ezpainenetan.

Honetaz konturatu eta gero, itsas-abere zatitzen hasi ziren eta haren mingaina eta tripak 3.300 kg-ko pisukoa zirela nabaritu zuten. Oso handia eta aprobetsagarria zenez, Euskal Herriko jendari, haren olioia tinako 6 pezetan saltzea erabaki zuten. Animalia haren olioia ikaragarri ona zenez, jende guztia tina bat eroatera lehiatu zen. Olio hau oso erabilkorra zen gauza askotarako; adibidez, argia egiteko.

# ATAZA: INFORMAZIOA BILTZEN

## B.1. ATAZA: EUSKAL BALEA EZAGUTZEN

### 1. DIKTOGLOSIA

Atazatxo honetan diktoglosia deritzon teknika erabiliz kotzientzia gramatikala pizteko oso aproposa izan litekeen berreraikitze-jarduera bat proposatzen dizugu. Hemen daukazu ariketa proposatu nahi dizugun estrategiaren adibidetzat hartu beharko zenuke, garrantzitsuena prozedura horren onuragarritasun didaktikoaz jabetzea baita, gero, egoki derizkiozunean, horrelakoak programatzera anima zaitezten.

#### PROZEDURA:

1

#### Atazaurrea: testua aukeratu

- Ariketa berreraikitzaile honetarako abiapuntua B.1. atazan erabili diren bost testutxo horietako bat izango da; adibidez 2. fitxan agertzen dena:

Migratzailea da. Uda iparraldeko itsasoetan igarotzen du. Urtaro horretan elikagai asko metatu behar du, negua eta migrazioko joan-etorria ia jan gabe igarotzen baitu. Iparraldeko itsasoko urak hotzegi bihurtzen direnean, urteroko migrazioari ekiten diote. Balea bakoitzak bere eskualdea du negua igarotzeko eta urtero bertara itzultzen da.

**! Oharra:** Ariketa-mota honetarako, ulerkuntzaren aldetik nahikoa ustiatuta dagoen testua erabiltzea komeni da, ikasleen arreta testuaren alderdi formalera lerra dadin.

#### Atazaurrea: ariketaren nondik norakoak azaldu

- Komenigarria da oso, ariketari ekin aurretik, ikasleek argi eta garbi jakitea zer egin behar duten, zein diren prozeduraren une nagusiak eta zertarako den ariketa. Gauzak horrela, ezinbestekoa da irakasleak ariketa osoa ondo hausnartuta edukitzea klasera eraman aurretik. \*\*\*\*\*

#### Atazaurrea: prestaketa, oinarrizko laguntza eskaini

- Behin testu-zatia aukeratuta, ezaiezu B.1. atazan testu horrekin lan egin duten ikasleei azal dezatela guztien aurrean zein izenburu ipini dioten eta zergatik.
- Ondoren, idatz itzazu arbelean honako hiru hitzok: ELIKAGAIA, METATU, ESKUALDEA. Gogoratuko duzunez, hitz horiek dira B.1. atazan testu horrekin lan egin duten ikasleek azpimarratu behar dituztenak. Orain ikasle horiek azal dezatela labur-labur, talde osoaren aurrean, zein zen hitz horien esanahia irakurritako testuan.

#### Ataza: diktaketa eta testuaren berreraiketa

- Irakasleak, ikasleen arreta bildu eta testu-zatia ozen irakurriko du, abiadura normalean. Lehenengo irakurraldi honetan, ikasleek ezingo dute ezer idatzi; testuaren mamia ahalik eta ondoen ulertzen saiatu beharko dute, besterik gabe.
- Bigarren irakurraldian berriz aurrekoan ez bezala, irakasleak etenaldi txikiak (hiru segundokoak) egingo ditu esalditik esaldira. Tartetxo horiek “oharrak hartzeko” baliatuko dituzte ikasleek.

\*\*\*\*\* Hemengo azalpenei gutxi irizten dien irakasleak irakur beza: Perez, C. 1992 Diktoglosiaren teknika eta hizkuntzen irakaskuntza In: Zutabe, 30: 15-20. orr.

**! Oharra:** Etenaldiak hain laburrak izanik, ikasleentzat ezinezkoa izango da testua hitzez hitz jasotzea. Hori dela eta, testuaren berreraiketarako giltzarritzat jotzen dituzten hitz, esapide edo dena delakoak jasotzea litzateke estrategiarik onuragarriena.

■ Ikasle bakoitzak testua berridazten edo berreraikitzen saiatu beharko du, jatorrizko testuaren esanahitik ahalik eta gutxien aldentuz. Lan horri aurre egiteko, buruan dituen hizkuntz baliabideak jarri beharko ditu jokoan ikasleak, bere tarteko hizkuntza agerian utziz.

**! Oharra:** Testuaren berreraiketa bakarka barik binaka edo hirunaka ere egin liteke, nola ez!

## Feedbacka

■ Ariketaren zuzenketa hainbat modutan egin daiteke. Irakasleak, edo ikasleak, erabaki beharko dute zein den modurik eraginkorrena. Guk, hemen, zuzenketa bideratzeko hainbat aldaera proposatuko ditugu:

1. Irakasleak testu guztiak bildu eta berak zuzendu.
2. Ikasleak, binaka bilduta, euren artean zuzendu, elkarri lagunduz.
3. Ikasle baten testua denon artean zuzendu, irakaslearen gidaritzapean.
4. Aurreko hiru moduak nahasten dituen beste formularen bat.

**! Oharra:** Esan beharrik ez dago zuzenketa horretan zuzentasun gramatikalari ez ezik kohesioari, koherentziari eta egokitasunari ere erreparatu behar zaiola.

# ATAZA: INFORMAZIOA BILTZEN

## B.3. Ataza: ARRANTZAKO TEKNIKA

### 2. TALAIAK

#### Helburua:

- Irudietan eta aurre-ezagutzan oinarrituta, aurreikuspenak egitea.

#### Zertan den:

- Entzute-ariketa honetan, ikasleak aurreikuspenak egitera bultzatu nahi ditugu. Horretarako bi iturri ezberdin izango dituzte: alde batetik, gaiaren ezagutza (B.3. atazan jorratutako hainbat kontu agertuko dira berriro bideo-pasartean), eta, bestetik, bideo-pasartearen irudiak, hau da, ikusizko informazioa.

**! Oharra:** Ariketa osagarri hau B.3. ataza bukatutakoan egin behar da, nahitaez.

#### PROZEDURA:

1

#### Atazaurrea: entzute-ariketaren aurkezpena

- Ezertan hasi aurretik, komeni da ikasleei oinarritzko argibide batzuk ematea zeharo galduta senti ez daitezen. Besteak beste, honako puntuok hartu beharko zenituzke hizpide:
  1. Bideo-pasartearen (ikus 3.3. eranskinean “Talaiak” bideo-pasarte honen transkripzioa) formatoa: kazetari baten azalpena (erreportajea).
  2. Bideo-pasartearen iraupena: hiru minutu eskas.
  3. Jorratuko den gaiaren aipamena: kasu honetan, baleen kontuarekin lotuta dagoela esatearekin nahikoa da.
  4. Ariketaren prozedura: punturik garrantzitsuenak.

**! Oharra:** ariketa klasera eraman baino lehen, irakasleak ondo aztertuta eduki behar ditu bideo-pasartea eta ariketaren prozedura.

#### Atazaurrea: irudiak ikusi eta aurreikuspenak egin

- Bana iezaiezu ikasleei “erreportajearen edukia aurreikusten” izeneko orria. Bideo-pasartea ahotsik gabe ikusi ostean, norberaren aurreikuspenak atala bete beharko dute. Aurreikuspen horiek, guk proposatutako beste bi adibide horien gisakoak izango dira, eta gaiaren alde aurretiko ezagutzatik eta ikusitako irudietatik bereganatu duten informazioa islatuko dute. (Aurreikuspenak egiterakoan izan daitezela ausartak, eta proposa ditzatela zeharo nabarmenak ez diren kontuak ere).
- Ikasleek euren aurreikuspenak azalduko dituzte talde osoaren aurrean eta ikaskideen aurreikuspenak atalean biltzeko esango diegu. Aurreikuspenekin batera saia daitezela, baita ere, zergatiak azaltzen, hau da: zein keinu, irudi edo aurrezagutzatan oinarritu diren.

**! Oharra:** Bistan denez, ariketa honek aukera polita eskainiko dizu ikasleak zehar estiloarekin nola moldatu diren ikusteko. Alde horretatik zerbait zuzendu edo komentatu beharrik balego, ez utzi gerorako.

#### Ataza: bideo-pasartea ikus-entzun eta aurreikuspenak egiaztatu

- Bideo-pasartea ikusteko aukera emango diegu berriro, baina oraingoan ahots eta guzti. Aurreikuspenetan bildutako ideien inguruan jarri behar dute arreta, batez ere.

## Feedbacka


- Bideo-pasartea bukatutakoan, binaka bildu eta zein aurreikuspenetan asmatu duten eta zeinetan ez komentatuko dute. Bidenabar, saia daitezela oso ondo ulertu ez dituzten kontuei buruzko argibideak eskatzen eta ematen.
- Guztion artean egindakoa zuzendu. Eztabaidarik, zalantzarik edo gaizki ulerturik sortuko balitz, irakasleak argibideak eman beharko lituzke, jakina.

# IKASLEAREN FITXA

## ERREPORTAJEAREN EDUKIA AURREIKUSTEN

Zer azalduko digu Kristina Urrutiak?

<p><b>ADIBIDEAK</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Donostiako Uliia mendian bista zoragarriak daudela</li> <li>• Zenbat nekatu den hor goraino igotzen</li> </ul>
<p><b>NORBERAREN AURREIKUSPENAK</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>•</li> <li>•</li> <li>•</li> <li>•</li> </ul>
<p><b>IKASKIDEEN AURREIKUSPENAK</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>•</li> <li>•</li> <li>•</li> <li>•</li> <li>•</li> <li>•</li> <li>•</li> <li>•</li> <li>•</li> <li>•</li> <li>•</li> <li>•</li> <li>•</li> <li>•</li> <li>•</li> <li>•</li> <li>•</li> </ul>



Eskuetan daukazu liburuskak HABEk Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikulua (HEOK) garatzeko sustatu duen ikasmaterialari dagokio.

Kurrikulu berri honen arabera, euskalduntzeko prozesua lau mailatan banatzen da:

1. maila (aurreneko 6 urratsak gutxi gorabehera, eta bi zatitan banatua: 1 A eta 1 B (4., 5. eta 6. urratsak); 2. Maila (7., 8. eta 9. urratsak); 3. maila (10., 11. eta 12. urratsak) eta 4. maila (EGAtik gorakoa).

HABEk materialgintza proiektuaren bidez kurrikuluaren garapenean lagun dezaketen ikastunitate-eredu batzuk aurkeztu nahi ditu.

### **BARRENE (1B mailarako materiala)**

- Zu Tarzan... ni Jane (1. ikastunitatea)
- Ikusiz ikasi (2. ikastunitatea)
- Ederra da hitza (3. ikastunitatea)
- Eta etorkizunean, zer? (4. ikastunitatea)
- Han ere txakurrak oinutsik (5. ikastunitatea)
- Euskaldun fobiadun (6. ikastunitatea)
- Txangoa (7. ikastunitatea)
- Sineskeriak (8. ikastunitatea)

### **BARRENET (2. mailarako materiala)**


- Euskaldunaren hitza ez da ur gaineko bitza (1. ikastunitatea)
- Zu nolako, etxea halako (2. ikastunitatea)
- Donostian Donosti eta gorostian gorosti (3. ikastunitatea)
- Liburuak, trukean (4. ikastunitatea)
- Euskal balea (5. ikastunitatea)
- Ogi gogorrari hagin zorrotza (6. ikastunitatea)
- Aratuste edo ihauteri: Pirata edo kortsari (7. ikastunitatea)
- Opor bereziak (8. ikastunitatea)

### **BARRENKALE (3. mailarako materiala)**


- Neu eta neu bezalako beste piztia batzuk (1. ikastunitatea)
- Txapela buruan, ibili munduan (2. ikastunitatea)
- Lévi-Strauss eta Levi Strauss (3. ikastunitatea)
- Lau hankako lagunak (4. ikastunitatea)
- Hara eta hona (5. ikastunitatea)
- Atxagaren beldurrak (6. ikastunitatea)
- Bizi aroak (7. ikastunitatea)
- Olatua ez dator behin ere bakarrik (8. ikastunitatea)

Denek dute irakaslearentzako zein ikaslearentzako liburuskak (irakaslearena eta ikaslearena). Horrez gain bideo- eta audio-zintak ere argitaratu dira.

**HABE**  
Herriaren Afektazioen eta Berreskuratzearen Erakunde Autonomoa



ISBN 84-86968-73-9



9 788486 968731